

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 8a / 572. zenbakia

San Valentín

Maite duguna posteko aitzakia



ORAIN ETA HEMEN: JURGI CRISTOBALI ELKARRIZKETA/6 • HEZKIDETZA PROGRAMA/8

IBAI ARTEK urtean barrena eskainitako arreta eta gertatutako ekintzetan parte izana eskertzen dizue: zuzeneko saioak, 300 euroko zozketa, Gabonetako hiru otarren zozketa, eta abar.

*Jarraitu gure artean
Ez zaizu damutuko*

*Ondo pasatu
Aratusteetan!!!*



IBAI ARTE, Gabonetako hiru otarrak **HARREMAN** erakundeari ematen.

MARTXOAK 8KO V. KARTEL LEHIAKETA


2002. urteko martxoaren 8ko leloa
"Martxoak 8 zurea, nirea, denona!!!"
izango da eta horma-irudi
lehiaketaren oinarriak honako
hauek dira:

1. Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte.
2. Kartelen neurriak gehienez 50x70 cm-koak izango dira.
3. Teknika librea izango da.
4. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute:
"Martxoak 8 zurea, nirea, denona"
5. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du (%20ko PFEZren atxikipena izango du saria).
6. Kartelak, 2002ko otsailaren 18a baino lehen, Udaletxera bidali behar dira, Emakume Sailerak.

Tel: 943 79 09 00 / 943 79 41 39




KALEINKESTA/ Zure bikotekidiakin San Valentín egunien bakarrik akordetan zara?




MODESTA ÓRTIZ
Etxekoandrie



RESU LEZETA
Etxekoandrie



XABI LARREA
Ikaslie



ASIER BERGARETXE
Langillie



ELISABETH GONZÁLEZ
Etxekoandrie



ABEL ALONSO
Langillie

Ez, egun askotan akordetan naz, baiñe, bereziki, San Valentíñen. Gizonak erregaluren bat edo beste ekar-ten dust. Ez da gaztetan moduen, baiñe ilusiñuakin itxoitten dogu egun hori.

Jakiña San Valentíñen akordetan garela! Baiñe gure San Valentíñek pasau-ta dagoz. Hori bai, akorde-tan gare. Gaiñera, denpora asko ez dala arte egitten geuen zeozer.

Ez, ez dauket-eta neskala-gunik, baiñe euki ezkeru, ospatuko neuke.

Pentsetan dot egun hori zelebretie edo ez norberak ikusi biher dauela, norberaren aukerie da.


Egunero akordetan naz. Ez da egon biher egun kon-kreturik harekin akorde-tako. Erregaluri ez, baiñe mañtasune, egunero. San Valentín ez jat askorik gus-tetan, egun komertziala da.

San Valentíñen bakarrik ez, baiñe San Valentín egu-na izenda gehixago akorde-tan naz.

Elkarri zorionak emun bai, baiñe ez dogu oparirik egitten.

Nik paso egitten dot otsai-laren 14az. Uste dot kon-tsumismo hutsa dala, ez besterik. Erregaluek gura dotenian egitten dittut nik, eta ez egun horretan bere-ziki.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK MAALAKO ESTOLDA ZARATATSUAK Maalako auzokide batzuek deitu digute euren kexa helarazteko. Kalea oinezkoendako jartzearekin bat, estoldak jarri zizkieten kalean. Itxura denez, horietako bat, Todo a cien dendaren eta Monte tabernaren artean dagoena, txapazkoa da eta kolokan dago. Hori dela eta, zirkulazio ordue-tan zarata handia ateratzen du, eta kexu dira.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 11

KULTURA / 18

Erguin berriro urbanizatu

Erguin auzoa gaur egungo beharretara egokitzeko proiektua onartu du Gobernu Batzordeak.

San Andres xake taldea

Arrasateko San Andres xake taldeak Gipuzkoa-ko Liga irabazi du, eta Euskal Ligan izango da.

Antzerkia, barra-barra

Gaurtik aurrera eta datorren egubakoitza arte, hainbat antzerki ikuskizun izango dira Mondragoen.

ASTEKO DATUA

6.347

MILIOI EURO ERGUIN AUZOA BERRIRO URBANIZATZEKO

Udalak oraingo astean onartu du LKS enpresak Erguin auzoa berriro urbanizatzeko aurkeztu duen proiektua. Oro har, Erguingo auzokideen bizi-kalitatea hobetzea da Udalaren asmoa.

BESTE EKESANA

“Azken urte hauetan aldaketa handiak bizi izan ditugu, batez ere enpresa barneko gaiak zelan eraman behar ditugun aztertzean. Zentzu horretan, askotan, eman ditugun pausuak baloratzeke uanean zuhurregiak izaten gara. Pausu horiek poliki ematen ditugu eta konturatu gabe hasierako erreferentziak ahaztu egiten ditugu. Modu honetan, enpresa kanpotik ikusten duenak bizi izan dugun aldaketa ondo ikusten du, guk baino hobeto. Parte hartzearen eremuan ere antzeko zerbaite gertatzen ari zaigula uste dut (...) Lanpostu bakoitzarekiko parte hartzearen aldekoa, azken finean, gure enpresan lanean ibilita etekinak guztiontzako dira-eta”.

FERNANDO GOYENA
TU LANKIDE/02-01-01

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



Ez da kasualitatea, eta bi

Aste honetan ere izan da hildakorik gure inguruko errepideetan. Zaharrak berri?

Aurrekoan liburu bat gomendatzen nizuen, gaurkoan beste liburu bateko iruzkin batzuekin nator (*Contra el automóvil*. Virus argitaletxea).

“Auto baten jabetzak etekin larregi dakarkio jende larregiri, norbaitek kanpaina politiko huts bat abia dezan autoa alde batera uzteko. (...) E.J. Mishan ekonomistak, ‘kostu eta etekinen analisia’ izeneko teknika-z baliaturik, autoak inposatzen duen bereiztu gabeko hilkortasuna eta kontaezinezko kostu sozialak aintzat hartuz, ondorioztatu zuen ‘autoa partikularraren asmatzea gizadiari gertatu zaion hondamendi handienetariko bat dela. Mezua oharkabe pasatu zela esatea soberan dago. Gaur egungo berekoikeriaren kontsagrazioa horretaz ardura-tu da”.

“Automobilak autoen

artean harremanak mantentzen ditu. Autoen gidariak, batez ere, jabeak, tabernetara-eta doazenean euren autoez berba egitera behartuta daude. (...) Horrela ixten da zirkulua: autoak dira benetan tabernetara doazenak. Autoak ordezkatzeko gaitu”.

“Olandixoko tunelerako, arrasatear bakoitzak ehun mila pezeta ordaindu beharko lituzke”

Bestalde, azkenaldian isil samar dagoen proiektu batez gogoeta txiki bat: kooperatibenda-ko egin nahi den Olandixoko tunelaz ari natzaizue berriz. Oraindik ez bada burutu, proiektu gehienak bezala, finantzazio arazoengatik da. Beno ba, Diputazioak nahi duen bezala proiektua Udalak ordainduz gero, eta orain dela urte batzuetako zenbakiekin, arrasatear bakoitzak ehun mila pezeta inguru ordaindu beharko lituzke. Hori guztia, langile bakoitza bera bakarrik autoan bapo joan ahal izateko.

Konturatuko zineten ez ditudala aipatu autoaren kalte “ezagunenak”: zaratak, keak, energia barra-barra xahutzea...

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Boliñaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Euskó Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GOARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
I. Zabala, Zarugalde 42.....943 77 16 30
- ZAPATUA, 9**
A. Ruiz, Maala 31.....943 79 14 09
- DOMEKA, 10**
S. Español, Araba etor. 17.....943 79 18 65
- ASTELEHENA, 11**
A. Azkoaga, Ferrerías 1.....943 79 15 15
- MARTITZENA, 12**
M.F. Azkoaga, Iturriotz.....943 79 79 99
- EGUAZTENA, 13**
M. Corcuera, M. Aranbarri 1.....943 79 22 26
- EGUENA, 14**
J.A. Irizar, Erguin 11.....943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea, . 943 03 53 00
Iguatorialdea, . 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak, . 943 79 39 00
Emakumeak, . 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea, . 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak, . 112
Gurutze Gorria, . 943 76 55 76
DYA, . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua, . 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera, . 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan, . 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan, . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera, . 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan, . 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatría 943 03 52 50
• Espezialitateak, . 943 03 53 11
• Ikuskatzailea, . 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak, . 943 03 53 11

- ANBULANTZIARIK**
Gipuzkoako ambulanziaz, . 943 45 87 44

- ERTZAINITZA**
Arrasate, . 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea, . 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua, . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea, . 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua), . 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero), . 943 12 01 62
Gasa, . 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak, . 943 79 12 22
PESA, . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza, . 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza, . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron, . 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 Santa Teresan (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

'ETXEO LANAK BANATU'
Arrasateko Udaleko Emakume sailak eta Emakumeen Kontseiluak *Etxeko lanak egitea guztion ardura da* lelopean ikastaroak antolatu ditu otsailaren 14tik maiatzaren 30era. Izena eman otsailaren 13aren aurretik Emakume Sailean.

ARRASATE MUSIKAL
Arrasate Musikaleko areto nagusian Aratusteetako kontzertua egingo dute gaur, 18:30ean.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Datorren egunean, otsailaren 14an, 21:30ean, *Amores Perros* filma izango da ikusgai Amaia Udal Antzokian.

GESALIBARKO JAIK
Gaur, 19:00etan, suziri jaurtiketa. 20:30ean, auzo afaria Jentil Ola elkartearen, Andoni Egañarekin eta Sebastian Lizasorekin. Gero, dantzaldia egongo da, Txinparta taldearekin. Zapatuan, 11:30ean, gaztetxoendako jolasak, tailerrak eta buruhandiak. 12:00etan, hildakoen aldeko meza. 14:30ean, abesbatzak Santa Ageda abestuko du. 22:30ean, Txinparta. Domekan, 12:00etan, meza, Gesalibar eta Garagartzako koruarekin.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Abian daude XV. Arrasate Lehiaketak. Ipuina, poesia, komikia, bertso-paperak, euskalki grabazioak eta irrati erreportajeak. AEDra bidali otsailaren 15a baino lehen.

DEBAGUNEN EGUTEGIAK
Debaguneko egutegiak salgai daude AEDn.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN


Bideoteka jarri zuten Euskara Zerbitzuan

Udaleko Euskara Zerbitzuak Bideoteka zerbitzua jarri zuen abian. Hiru urtean euskaraz argitaratutako bideo-zintak erosten ibili zen Udaleko Euskara Zerbitzua. Horren ondorioz, film komertzial eta didaktikoen artean, ehun zinta baino gehiago eskaini zizkieten arrasatearrei.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Marraskala"



Argala, ziztrina.
-Ondo marraskala dago andra koittaua.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Aratusteak nagusi irratian

Astelehen eta martitzenean, Aratusteak izango dira nagusi Arrasate Irratian. Astelehenean, 10:00etatik aurrera, Aretxabaleako Aratusteen gainean egingo dugu berba, eta hango giroa kontatuko dizuegu. Martitzenean, Arrasatekoak izango dira nagusi. Gainera, Txalo Zirkus antzerki taldearekin egingo dugu berba, martitzenean *Zirko Ttipia* lana eskainiko du eta. Eguaztenean, martitzeneko mozerroen gainean jardungo dugu.

CDen garestitzea eta pirateatzea

CDak garestitzearen eta pirateatzearen inguruan iritzia eskatu dugu, eta hainbat iritzi entzungo ditugu zapatuan eta domekan: Gaztelupeko Hotsak diskoetxeke Ubane Usin eta Ruper Ordorika. Homosexualitatearen eta Elizaren inguruan ere iritzi bila ibili gara. Gehitu taldeko Inigo Lamarcarekin eta Josemari Astigarraga parrokoarekin izan gara. Eta torradak egiten ikasiko duzue Ugaran jatetxeke sukaldariarekin.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 2	0°C	
MAXIMOA Zapatua, 2	21°C	
ASTEKO EURIA (l/m²)	42,1	
	Max. Min. Euro	
Eguaztena, 30	16°C 7°C	-
Eguena, 31	16°C 7°C	0,9
Egubakoitza, 1	19°C 3°C	-
Zapatua, 2	21°C 0°C	-
Domeka, 3	17°C 6°C	1,9
Astelehena, 4	17°C 4°C	-
Martitzena, 5	16°C 14°C	39,3

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZI

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZA	
09:00	Albistegia
09:30	Igo autobusera
11:30	Albistegia
12:00	Musika
14:00	Errepikapena
ASTELEHENA	
21:00	MIR
MARTIZENA	
21:00	Hi bizi hadi
EGUAZTENA	
21:00	Hitz eta pitz
22:00	Pottokatzen
EGUENA	
21:00	Gailurretik
EGUBAKOITZA	
20:00	Azkenberri.com
21:00	Draxtor
22:00	In session
23:50	Asteke elkarrizketa
ZAPATUA	
10:00	Musika klasiko
11:00	Asteke elkarrizketa
23:00	Hitz eta Pitz (errep.)
24:00	MIR (errep.)
DOMEKA	
11:00	Asteke elkarrizketa
23:00	Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Sei mozioak onartu zituzten

Minutu bateko isiluneaz hasi zuten zinegotziek osoko bilkura joan den egunean. PSE-EE alderdiak eskatuta, ETAK egindako azkeneko atentatuak gaitzesteko egin zuten zinegotziek isilunea. Gero, batzarra hasi zen. Gai guztiak onartu zituen udalbatzarrek. Guztira, 22. Tartean, sei mozio izan ziren, eta horrek eztabaida piztu zuen politikarien artean. Kontuak kontu, azaroaren 6tik urtarri-laren 12raino ETAK egindako atentatuak eta atentatu saiakerak gaitzestea onartu zuten zinegotziek bost moziotan, EAJren, EAren, PPren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta Batasunaren kontrakoekin (Ezker Batuko ordezkaria ez zegoen). Jeltzaleek aurkeztutako "bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala" ere onartu zuten boto berekin. Eta, bestalde, Mikel Piedehierro errefuxiatu arrasatearraren kanporatze arriskua salatzen zuen Batasunak aurkeztutako beste mozio bat ere onartu zuten zinegotziek; kasu horretan, Batasunaren eta EAren aldeko botoekin eta gainerakoekin kontrako botoekin.

Fagor Elektratresnak-ek lantokia Basaurin

Joan den astelehenean, Fagor Elektratresnak enpresak lantokia inauguratu zuen Basaurin. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetako ordezkari zabalak hartu zuen parte lantokiaren inaugurazioan. Horien artean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Jesus Catania MCCko presidentek eta Josu Bergara Bizkaiko diputatuak.

Basaurin inauguratu duten lantokian termoak egiten dituzte etxebizitzetarako. Gaur egun, 140 langilek egiten dute lan, baina gaurko ekitaldian adierazi dutenez, aurren, ehun eta laurogei behargin edukitzeraz irits daitezke. Hau da, berrogei langile gehiago. Bestalde, lantokia oso moderno da. Europan ez da dago horrelakorik. Eta, hain zuzen, nazioarteko merkatua sendotu nahi du Fagorrek.



Istripuak Gesalibarren eta Ekilore alboan

Egubakoitzean (hilaren 1ean), 07:30ean, Aramaioa zihon Pesa etxeko autobus batek kontrola galdu eta Gesalibarko elizaren horma jo zuen. Gidaria ospitalera larri eraman eta hil egin zen. Eguerdian, Elorregira bidean auto batek gizon bat harrapatu eta zauri larriak eragin zizkion.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Mugarik gabeko legeak

Baltasar Garzonek Segi eta Askatasuna erakundeak ilegaltzat jotuela entzun berri dut, eta zera pentsatu dut berriro: Lizarra-Garaziko ituna hitzartu zutenean, argi eta garbi ikusi genuen honakoa: PPko gobernuak, ETAreneko beste inoren indarkeriari baino areago, askoz beldur handiagoa die Euskal Herriaren aldeko aldarrikapen eta

gobernuaren aurkako salaketak eragiten dien taldeei. Baita ere zenbait alderdi politikok bat egin eta PPk gustuko ez dituen oinarrizko puntu batzuetan ados jarriz gero.

Lasai, PPk Garzon epailea bere zerbitzura dauka, eta terrorismoaren aurka aritzeak ez dauka mugarik. Guztia da terrorismoa! Berdin da *Egin*, AEK, Joxemi

Zumalabe Fundazioa, Ekin, ikastolak, euskara, AABB, Jarrai, Segi, Askatasuna...

Duela urte batzuk, ohikoa zen mezu hau entzun edo irakurtzea: "Lau katuk besterik ez du gura Euskal Herrian indarkeria". Hainbeste dira dagoeneko ilegaltzat jot, auziperatu eta mehatxatu dituzten erakunde, aipatutako esaldi hori gaur egun errepikatzea batzuek dako lotsagarria izango litzatekeela.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

ASPALDIKO PARTEZ, EURIA BUELTATU DA GURERA, ETA ASKOK ESKERTU EGINGO DUTE

Iraganean, behintzat, ohikoa zen Euskal Herriko eguraldiaz berba egitean euri zaparradak eta zirimiria aipatzea. Hala ere, azken urteetan, berotegi efektuagatik edo beste arrazoiren bategatik, geroago eta euri gutxiago egiten du. Aurten ere, egun oso gutxitan egin du euria, eta urtegiak eta ortuak

ur premian zeuden. Ez egoera larrian, baina bai premian. Bada, joan den martitzenean iragarrirako lainoek hurreratu eta euria ekarri digute, gogoz, gainera. Orain ikusi egin behar da noiz arte irauten duen, azkar nekatzen gara-eta! Horrez gain, iragarrirako hotza eta elurra ere etorriko dira?

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa

Tel: 943 79 76 58

ARRASATE

Yagoba

Larrañaga Oregi

ARKITEKTO TEKNIKOA

Obra zuzendaritza.

Eraberritze eta birgaitze proiektuak.

Informe teknikoak eta jarduera espedienteak.

Arrasate pasealekua 13, behea
Tel./Faxa: 943 79 26 88 ARRASATE



ALDEDI

MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

ELKARRIZKETA

JURGI CRISTOBAL/MEXIKON TXIMINOAK AZTERTZEN DABILEN MONDRAGOETARRA

“Ni bizi naizen lekuan, oihana moztan duena beharra daukan jende txiroa da”

IKER BARANDIARAN

Jurgi Cristobal bedoñarra da, eta Eusko Jaurlaritzaren beka baten bitartez Mexikon dabil, hango tximinoak aztertzen, Albaitaritzako tesia egiten. Jaso duen beka 2003ko abenduan bukatuko du. Arrasate Irratian izan zen, eta idatzira moldatu dugu Jurgik kontatutakoa.

Leku askotan ibilia zara. Gaur egun, nondik nora zabilta?

Gaur egun, Mexiko, Bartzelona eta Arrasate artean bizi naiz, baina, batez ere, Mexikon. Duela hiru urte joan nintzen Mexikora, udan, hiru hilabeterako. Hurrengo urtean, beste hiru hilabete pasatu nituen han. Duela urte bi, martxotik abendura izan nintzen Mexikon, eta joan den urtean ere, martxotik abendura. Aurten, otsailean joango naiz hara.

Konta egiguzu, zehatz-mehatz, zertan zabilta han, Mexikon.

Mexikoko oihaneko tximinoak ikertzen gabiltza. Batez ere, oihanaren zatitzeak eta txikitzeak haien iraunkortasunean daukan eragina aztertzen gabiltza, baita guk zer egin dezakegun tximinoon iraunkortasuna ziurtatzeko ere.

Eta Mexikoko zein inguruan bizi zara?


Veracruz estatuan nago, Mexikoko ekialdean, Mexikoko golkoan, hain zuzen ere. Han Los Tuxtlas izeneko mendi-lerroa dago, eta bertan oihan bat dago, Amerika osoko oihan ipartarrena. Hango herritxo baten nago, kostaldearen eta oihanaren artean, sumendien inguru baten.

Hortaz, zein da, nagusiki, zure eginkizuna?

Lehen esan dudan moduan, oihan-mozketak bi gauza dakar: bata, luraren azalera murriztea, eta, bestea, oihana zatituta gelditzea. Horren ondorioz, oihan zati batzuk isolatuta gelditzen dira. Lurralde bolkanikoa denez, mendixka antzeko batzuk sortzen dira, eta, aldapa handiak direnez, ez dago ganadurik, oihana eta tximinoak baizik. Gu zera aztertzen ari gara: behin isolatuta, zergatik dabilen tximino kopurua txikitzen, eta horren aurrean zer egin.

Eta zergatik eta zertarako dabilta oihanari lurzorua kentzen?

Azken baten, jende txiroak ganadua eta nekazaritza sartzeko egiten dute hori. Askotan, telebistan ikusten dugu enpresa handiak izaten direla basoak ken-



IKER BARANDIARAN

“Tximino orrolariak zazpi bat kilo du, zuhaitzetan bizi da eta Amerikan dagoen handiena da”

tzen dituztenak, baina ni bizi naizen lekuan oihana herritarrek moztan dute; beharra daukaten herritar pobreak. Hor paradoxak izaten dira. Nik oihanak kontserbatzearen alde egiten dut lan, baina hango jendea baino askoz hobeto bizi naiz. Nik zer esan diezaioket jende horri? Eurek esango didate nik daukadana gura dutela, ni bezala egotea. Izatez, eura egiten ari direna debekatuta dago, baina bizi duten egoera ezagututa, ezin diet ezer esan.

Eta zer tratua mota daukazu zuek hango herritarrekin?

Oso ona. Gainera, ni bizi naizen herrian kontzientzia ekologiko handia daukate. Erreserba

“04:00etan jaiki, gauzez bi ordu oinez egin eta tximinoak aztertzen aritzen gara egun osoan”

sortu dute, ekoturismo proiektu bat ere bultzatzen dabilta. Azken baten, zerbait egin gura izanez gero, alternatibak sortu behar dira. Mexikoko herrialde horien kasuan, hango herritarrei, jana edukiz gero, oihana gehiago ez deuseztatzeko eskatzen diete herrialde garatuetatik. Baina herrialde garatuetan jana soberan eduki arren, gure inguruak deuseztatzen jarraitzen dugu eta dagoeneko hemen ez da ezer gertatzen. Erraza da besteei ingurumena zaintzeko esatea.

Gai horiek alde batera utzita, konta egiguzu zelakoa den zuek aztertzen ari zareten tximino mota.

“Tximino horrek egiten duen ulua hiru kilometrora entzun daiteke. Oso berezia da”

Bueno, tximino mota horrek zazpi bat kilo du, Amerikan dagoen tximino handiena da. Zuhaitzetan bizi dira tximinoak, eta oso gutxitan jaisten dira zuhaitzetik. Horregatik, oihana zatitzeak tximinoei arazo handia sorrarazten die. Zuhaitz batetik bestera igaro ezin horrek euren eremua izugarri murrizten die.

Bestalde, tximino horiek berezitasun garrantzitsu bat daukate: ulu egiten dute. Goizero ulu gogor batzuk egiten dituzte, eta hiru bat kilometrora entzuten dira uluok. Tximino horiek Argentinako iparraldearen eta Mexikoko hegoaldearen artean bizi dira. Ez dakigu ziur zergatik

egiten duten ulu, baina batzuen ustetan, lurraldetasuna azpimarratzeko egiten dute.

Bestela, berez, oso tximino lasaiak dira, talde handietan ibiltzen dira, beste zortzi, hamar edo hogeit lagunekin. Eta denbora gehiena, egun erdia-edo, lo igarotzen dute.

Eta ez zara aspertzen beti haiei begira?

Bueno, batzuetan bai, baina lan guztiek daukate alde txarra.

Eta hasi zarete ondorioz ateratzen?

Horretan gabiltza. Dagoeneko lauhun bat tximino zenbaitu ditugu. Taldeen egituraketa ere badaukagu, eta ez da gutxi. Datu batzuk ikertzen ere hasi gara. Tximino horiek hostoak jaten dituzte, hortaz, energia kopuru txikia hartzen dute. Horren ondorioz, oso lasaiak dira, behien antzeko erritmoa dute. Beldurtzen badira-edo, korrika egiten dute, bestela ez.

Eta zelan egiten duzue lan zuek?

Goizeko lauretan jaikitzen gara eta bi ordu egiten ditugu oinez, gauzez. Goizeko seietan iratzartzen direnean ulu egiten dituzte, egunsentia baino lehenago aurkitu behar ditugu. Bestela, egunean barrena hain geldi egoten direnez, ezin ditzakegu antzemana. Gainera, zuhaitzen goiko aldean ibiltzen dira, hogeita hamar eta berrogeita hamar metroko altueran.

Goizeko seietan, tximinoei begiratzen eta oharrak hartzen hasten naiz, batzuetan eguerdian arte eta beste batzuetan hamahiru orduan.

Eta tximinoek eta gizakiek benetan daukate halako antzekotasun handia?

Bai, baina ez hainbestekoa. Tximino horiek ez dira txinpanzteen modukoak. Txinpanzteen askoz adierazgarriagoak dira. Tximino orrolariak oso lasaiak dira. Beste berezitasun bat ere badute: arrek umeekin asko jolastuten dute.

Eta lasaitasun hori zeuk ere hartu duzu?

Bai. Hona etortzen naizenean, pixka bat estresatu eta aluzimatu egiten dut. Adibidez, hemen jende lepo dagoen taberna baten sartzen naizenean, eromena ez ote den pentsatzen dut batzuetan.

Zelan bizi zara han?

Bueno, neu ere nahiko lasai bizi naiz. Bizi naizen herria zibilizaziotik ordu eta erdira dago eta mendi pista batetik joan beharra dago. Ez daukagu telebistarik, ez dugulako gura. Baina, bestalde, internet ez edukitzea faltan sumatzen dut.

Erguingo auzokideen bizi-kalitatea hobetzeko urbanizazio proiektua onartu du Udalak

UBANE MADERA

Erguin auzoa berriro urbanizatzeko proiektua onartu du Udalak. Oro har, auzoan bizi diren herritarren bizi-kalitatea hobetu gura du. Horretarako, besteak beste, aparkaleku gehiago, aisialdirako leku gehiago eta eskailera mekanikoak egingo dituzte.

LKS enpresak egin du proiektua. Orain, jendaurrean dago, alegazioak jasotzeko. Alegazioak aztertu eta erabaki ondoren, proiektua behin betiko onartuko dute. Eta gero, lanak adjudikatzeko prozesua hasiko dute. 6.347.730,84 euroko inbertsioa egingo dute Erguinen (1.056 milioi pezeta baino gehiago). Diru asko izanda, lanak zatika egitea erabaki dute, Udalaren baliabideen arabera.

Oro har, Erguin auzoa goitik behera berrituko dute, hango bizi-lagunen beharretara egokitzeko. Batetik, ibilgailuen zirkulazioan aldaketak egingo dituzte, betiere, oinezkoei lehentasuna emateko. Adibidez, aparkatu ezin daitekeen gune batzuetan eta espaloietan oztupoak ipiniko dituzte, aparkatzea galarazteko. Erguin kaleko bidegurutzetan, oinezkoek eta ibilgailuek bat egiten duten



ARTXIBOA

Sei milioi euro pasatxo inbertituko dituzte Erguin berriro urbanizatzen.

guneetan, zoladura aldatu egingo dute, eta oinezkoendako egokitu; automobilak motelago joan beharko dira, eta, hala, oinezkoek izango dute lehentasuna. Horrekin batera, Udala plazako biribilean lanak egitea aurrez ikusi dute, auto ilarak eta auto pilaketak saihesteko. Horrez gain, oro har aparkaleku gehiago izango ditu auzoak.

Bestetik, espaloi guztiak aldatu gura dituzte, eta berriak ipini;

baita kaleko argiak ere. Leku gehienetan telefonia eta argindar hodiak lurpean sartuko dituzte. Eta, era berean, saneamenduan eta gasifikazioan beharrezko konponketak egingo dituzte.

FUTBITO-ESKUBALOI ETA MINI-BASKET

Horrez gain, auzoko eserleku, zakarrontzi eta eskudelak aldatu eta berriak ipintzeko asmoa ere badute. Baita zuhaitzak ere, auzoaren beharretara egokitzen.

Aisialdirako gune gehiago sortuko dituzte, eta daudenak berri-itu egingo dituzte. Adibidez, Erguin eta Uriburu kaleetako plazatxoetan umeendako jolas-guneak ipiniko dituzte; eta Anboto kalearen amaieran dagoen garajearen goiko aldean futbito-eskubaloi eta mini-basket kantxa bana egingo dute, iturri eta guzti. Berdegune gehiago ere sortu gura dituzte.

ESKAILERA MEKANIKOAK

Hori bai, lan horiek guztiak egiteko orduan, Udalak kontuan hartuko du Erguin auzoko etxebizitza askotan igogailuak ipintzeko lanak egiten ari direla edo egingo dituztela. Hortaz, igogailuak ipintzeko lekuri ez dagoen tokietan, lekua egingo dute. Zaborrarendako edukiontziak ipintzeko ere gordeko dute lekua.

Horrekin batera, bost eskailera mekaniko ipini gura ditu Udalak Erguin auzoan. Horieta-ko bik Uribarri kalea eta Uriburu kalea lotuko dituzte. Beste bik Uriburu kalea eta Erguin kalea, eta bosgarrenak Erguin eta Elizalde kaleak lotuko ditu. Eskailera horiek Uriburu, Erguin, Elizalde, Udalpe eta Anboto kaleetako bizilagunen mesederako izango dira.

Emakumeendako ikastaroak auzoetan

UBANE MADERA

San Andres eta Garagartza auzoetan, emakumeendako jarduerara programa antolatu dute herriko Udalak eta auzo bietako alkate-zek. Ekintzen helburua da auzo-eta emakumeendako elkargune izatea. Ikastaro bi izango dituzte aukeran: eskulan ikastaroa eta menopausia lantzeko tailerra. Otsailan hasiko dira eta ekainean bukatu. Eskolak auzo-alkate-zetako lokaletan izango dira.

Gabonetako jaiotza laguntzeko

UBANE MADERA

Gabonetan Santa Barbaran ipini zuten jaiotzak sortutako gastuak ordaintzeko, dirulaguntza emango du Udalak. Jaiotza hura egiteko, antolatzaileak, San Andres parrokiako batzordeak, alegia, 10.106 euro gastatu behar izan zituen; eta, berriz, 4.035 euroko sarrerak lortu ditu. Hortaz, 6.071 euroko galerak izan du. Gauzak horrela, oraingo asteko Gobernu Batzordeak erabaki du 1.804 euroko dirulaguntza ematea.

Edukiontziak ipintzen hasi dira ibarrean. Hemen, datorren astean


UBANE MADERA

Oraingo astean hasi da Mankomunitatea Debagoienean zaborrarendako edukiontziak ipintzen. Oñatin ekin dira, Eskoriatzan eta Aretxabaletan segituko dute eta datorren egubakoitzean, Arrasaten ipintzen hasiko dira. Otsailaren 22an bukatuko dute.

Herritarren aspaldiko eskaera aintzakotzat hartuta, herritarren zaborra batzeko edukiontziak ipintzen hasi da Mankomunitatea gure ibarrean. Guztira, 465 edukiontzi ipiniko ditu ibarrean, eta martxorako denak ipinita izatea espero du.

Oñatin hasi dira edukiontziak ipintzen. Eta, poliki-poliki, gainerako herrietan ipiniko dituzte. Arrasaten, datorren egubakoitzean, otsailaren 15ean, ekingo dira. Erguin auzoan hasiko dira, Zigorrolaranzko noranzkoan; hain justu, auzo hori izango da edukiontziak ipintzen azkena. Otsailaren 22ra arte jardungo dute edukiontziak ipintzen, eta egun bakoitzean 25 bat ipintzea aurrez ikusi dute Mankomunitateko langileek.

Hortaz, martxotik aurrera, herriko kaleetan ikusi ohi ditu-



UBANE

Herrian ipiniko dituzten edukiontzi asko AKEIn daude gordeta.

gun zabor-poltsak desagertu egingo dira, edukiontzi barruetan. Gero, beteta daudenean, garabia duen kamioi baten bitartez edukiontziak altxatu eta kamioi barruan hustuko dituzte edukiontziok. Hortaz, askoz ere ero-soagoa izango da erabilera.

ALDE ZAHARREAN, EZ

Edukiontziak berde kolorekoak dira; birziklatzen ez den zaborra batzeko dira, hau da, orain arte,

gainerako edukiontzi ondoan uzten genuen zaborra. Hori bai, salbuespen bat izango da Arrasaten: izan ere, alde zaharreko zaborra orain arte moduan batzen segituko dute, poltsetan, alegia. Hori dela eta, auzokideei zaborra non utzi jakinarazteko planoak emango dizkie Mankomunitateak. Era berean, edukiontziak zelan erabili azaltzen duen esku-orria banatuko dizkie gainerako bizilagunei.



Ibai Arteren saria, Harremanendako

Harreman gobernu kanpoko erakundeari eman dio Ibai Artek Gabonetako zozketaren saria. Gogoratuko duzuen bezala, saski horren irabazleak urtarrilaren 25era arteko epea zuen saria eskuratzeko, baina ez da inor agertu. Ondorioz, 800.000 pezetan baloratutako saskia Harremanari eman dio. Eta Harremanek dagoeneko erabaki du zer egin horrekin: maiatzean azoka txiki bat ipiniko du eta saskiko produktuak ohi baino prezio merkeagoan salduko ditu. Batutako dirua Kolonbiako San Clemente proiekturako bideratuko dute.

Sexismorik gabeko eskolaren alde, Hezkidetza Programak bost urte bete ditu Arrasaten

UBANE MADERA

Arrasateko zenbait ikastetxetan egiten ari diren Hezkidetza Programaren gainean prentsaurrekoa egin zuten eguaztenez. Udaleko eta eskoletako ordezkariak izan ziren, besteak beste. Adierazitakoaren arabera, orain arte, programa horrek oso emaitza positiboak izan ditu.

Orain dela bost urte, Udalak Gizonen eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako egitasmoa onartu zuen. Horren barruan, ikusi zuten hezkuntza ere zaindu beharreko arloa zela. Eta horrela, 1997an, DBHko eta DOBHko zenbait ikastetxeri hezkidetzan oinarritutako programa abian ipintzea proposatu zien Udalak. Eta, 1998an, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei egin zien gonbit bera. Arrasaten, Musakolako eta Erguingo herri eskolek eta Arrasate-Aretxabaleta institutuak onartu zuten Hezkidetza Programa abian ipintzea.

Oro har, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako hezkuntza da hezkidetza.

Dagoeneko bost urte pasatu dira ordutik hona. Eta, eguazte-



Hezkidetzan aurrera segitzeko asmoa erakutsi zuten eskoletako ordezkariak.

nean gai horren inguruan egindako prentsaurrekoan, emaitzen oso balorazio positiboa egin zuten lanean ibili direnek. Hiru ikastetxe horietako ordezkariak izan ziren prentsaurrekoan, baita Hezkuntza eta Emakume sailtako udal teknikari eta zinegotziak ere, Hezkidetza Programa garatzen ari den Urtxintxa Aisialdi elkarteko ordezkariarekin batera. Eta, bereziki, Hezkidetza Programa landu ahal izateko, talde

guztiak egin duten lankidetzan nabarmendu zuten. Gaineratutakoaren arabera, ikasleen, irakasleen eta gurasoen parte hartzea ona izan da orain arte, eta, aurten, adibidez, igo egin da. Hortaz, oso pozik daude emaitzarekin, eta hezkidetzarekin aurrera segitzeko asmo sendoa dutela jakinarazi zuten. Balorazio positibo horrekin batera, bost urteotan egindako ekintzen berri ere eman zuten.

IRAKASLE, IKASLE ETA GURASOAK

Azaldutakoaren arabera, uztartuta dauden hiru zatitan egiten ari dira Hezkidetza Programa: irakasleei zuzendutakoa, ikasleendakoa eta gurasoendakoa. Lehenik eta behin, ikastetxeetako irakasleei zuzendutako prestakuntza abiarazi zuten, hezkidetzan adituak diren aholkulari batzuen bidez. Dagoeneko irakasleen heziketaren zati handiena bukatu dute, baina oraindik ere aholkulariari jarraipena egiten dute.

Bigarren zatian, ikasgeletan ikasleekin hezkidetza ereduak landu eta abian ipintzea du helburu Hezkidetza Programak; eta, hain justu, gaur egun, horretan ari dira eskoletan. Adibidez, tutoretzako proiektuak egiten dituzte ikasleak berak landu ditzan hezkidetzan oinarritutako balioak.

Eta, hirugarren zatian, ikasleek gurasoak hezkidetzan hezi gura dituzte eta eskoletan lantzen ari diren hezkidetza proiektua euri helarazi. Eskoletako ordezkariak adierazi zuten, azken zati hori orain dela gutxi hasi dira lantzen.

Horrez gain, gaztetxoendako eta helduendako buletinak ere plazaratu dituzte (bederatzi buletin, hain zuzen) eta adituen hitzaldirak ere izan dituzte tartean.

LABUR

Askatasuna eta Segi taldeen alde

Oraingo astean, mobilizazioak izan dira herrian, Segi eta Askatasuna taldeak ilegalitatearen jo izana salatzen. Eguaztenez, batzarra egin zuten zenbait herritarrek Seber Aldearen, eta gaurko, berriz, Bortolan Eguna deitu dute.

Bi erakunde horiek 1893ko sumarioaren barruan sartu zituzten Garzon epaileak, "ETA Ekin parte" moduan. Eta gaurko Batzordeen eta Haikaren dearen ordezkariak dira.

Autodefentsa ikastaroa

Udalak emakumeendako autodefentsa ikastaroa antolatu du herriko ikastetxeekin batera. Arizmendi Ikastolan, Alde Berde Ikastetxean, Institutuan eta La Merceden emango dituzten ikastaroak, bakoitzean salatu bana. Hiru helburu lortu dituzte: autodefentsa teknika psikologiko eta fisikoak ikasteko; emakumeek jasaten dituzten erasoaren gainean hausnartzea; eta autoestimazioa asertibitate lantzea. Eskolako bakoitzak zehaztuko du ikastaroaren data.

Lan-istripuen kontra protesta egin dute zenbait sindikatuk

UBANE MADERA

Joan den egubakoitzean PESAKo autobus gidari batek Gesalibar auzoan izandako istripu larria salatzen, kale agerraldia egin zuten eguaztenez zenbait sindikatuk. *Lan istripu gehiagorik ez!* lelopean, gizartearen sentiberatasuna piztu gura izan zuten.

Eguazten goizean, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, kale bilkura egin zuten sindikatu horietako kideek Roneo lantegiaren parean. Hain justu, PESA autobus enpresak autobus biltegia duen lekua- ren parean izan zen kale bilkura. Horrela, batetik, eta *Lan istripu gehiagorik ez!* zioen pankarta batekin, joan den eguaztenez PESAKo gidari bat istripuan hil izana salatu zuten sindikatuek. Baina, bestetik, lan istripua bera salatu baino gehiago egin gura izan dute. ELA sindikatuko kide Luis Mari Aranek adierazitakoaren arabera, "kontzientzia gizar- tera zabaldu behar dugu eta lan- istripu guztiak salatu".

NEURRIEI GARRANTZI HANDIAGOA

Edozelan ere, eta aurrera begira, neurriak hartzea beharrezkoa




Joan den astean Gesalibar auzoan izandako istripua salatu zuten.

dela nabarmendu zuen ELAKo kideak. Haren esanetan, garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke istripuei aurre hartzeko neurriari. Eta, gaur egun, "demaseko arazoa" zutela jakinarazi zuen, "enpresek ez badituzte istripuei aurre hartzeko neurrien gestioa enpresen zuzendaritzaren barruan sartzen". Gaineratutakoaren arabera, "hori da bidea: segurtasun arloa zuzendaritzaren gestioaren beste puntu

bat izatea". Bestela aurrera egitea oso zaila izango dela adierazi zuen Aranek.

Horrekin batera, adierazi zuen ahalik eta istripu gutxien izateko neurriak garaz hartu behar direla.

Kale bilkura egiten ari zirela, Ertzaintza agertu zen, sindikatuek ez zuten eta protesta egiteko baimenik. Baina ez zen isturirik izan eta Ertzaintza joan egin zen.




Lantegi Eskola, hamabost urte lanean

Arrasateko Lantegi Eskolak hamabost urte bete ditu dagoeneko. Orain arte, 350 gazte inguruk izan dute aukera eskola horretan ogibideren bat ikasteko. Eta, ikasketak bukatu eta gero, gazte horietatik %80k lanean dihardute.

Ogibidea ikasteaz gain, lan garrantzitsuak ere egiten dituzte Lantegi Eskolakoek. Hain justu, oraingo asteko martitzenean, Antzuolan zaharberritu duten Olaran etxea inauguratu zuten. Horrez gain, besteak beste, Arrasateko Enpresa Ekimenerako Zentroa eta Oñatiko Olakua dorretxea ere berritu dituzte.

SANTA AGEDAKO BETERANOAK

Santa Ageda Koruko partaideak, goizeko zortzietan meza entzun eta gero, bi taldetan banatu ziren. Batzuek Musakola aldera jo zuten eta beste batzuek Bedoñarantz. Mondragoeko kale eta auzo guztietan barrena abestu eta dirua batu ondoren, ordu bietan herriko plazan elkartu ziren. Han abestu ondoren, Leintz elkartean bazkaldu zuten. Esan beharrik ez dago bikain ibili zirela.



UMEZAINZAKOAK, FIN-FIN

Astelehenean, herriko ikastetxeetako hainbat ume Santa Agedako abestiak kantatzen ibili ziren, kalean gora kalean behera. Arizmendiko Umezaintzakoak izan ziren gazteenak, eta Roneoko etxeetan, Portaloian, Udaletxean, Kontzezinon, San Andresen eta San Josepen izan ziren. Itzuli polita egin eta gero, bazkaltzera joan ziren guztiak.



GARAGARTZAN EZ ZUTEN HUTSIK EGIN

Arrasateko Garagartza auzoan zapatuan ospatu zuten Santa Ageda eguna. Eguraldia lagun, lehenengo koplak auzoko plazan abestu zituzten. Guztira berrogei bat lagun elkartu ziren, gazteak eta ez horren gazteak ere. Astoa ere ez zen

falta izan, nonbaiten sartu behar zuten-eta baserrietan jasotakoa. Hasieran berrogei lagun baziren ere, baserriz baserri ibiltzerakoan hainbat lagun elkartu zitzairen. Arratsalde osoa kantuan igaro eta gero, afari ederra izan zuten ondoren.



ERGUINEN ERE, MAJO

Erguingo herri eskolako ikasleek goiz parte aprobetxatu zuten Santa Agedako abestiak kantatzeko. Goizeko hamarretatik aurrera, Erguingo plazan, Usaetxen eta eskola parean dagoen parkean ere abestu zuten. Argazkian azaltzen den moduan, umeez gain, hainbat guraso ere han izan ziren, seme-alaben kantuekin gozatzen.



TXARRI JOLASA SALGAI

Santamasetan Txatxilipurdik Txarri Jolasa atera zuen. Arrasateko euskara bultzatzeko asmoarekin atera zuten jolas hori, eta harrera ona izan zuen. Orduan erosteko aukera izan ez zenutenok oraindik garaiz zabilzate; izan ere, Txatxilipurdiren lokalean oraindik salgai daude. Arrasateko euskara ezagutzeko asmoa duzuenok ez galdu aukera hau!



MONTERRON PARKEAN LANETAN

Gernika oinezkoen zumardia egiteko lanak aspaldi hasi ziren, eta dagoeneko Monterron parkeraino iritsi dira. Irudian ikusten den moduan, Monterronen zeuden komun zaharrak bota

dituzte, besteak beste. Orain, oinezkoendako pasealeku horrek Erguinerako bidea hartuko du, Zarugalde kalearen goiko aldetik, hain zuzen. Laster herri osoa gurutzatu ahal izango dugu, lasai-lasai paseatzen.



LUDOTEKA IBILTARIA

Otsailean, ludoteka ibiltaria Musakolako herri eskolan izango da. Zapatuero, 11:30etik 13:30era, Musakolako herri eskolako gaztetxoek jostailu mordoarekin jolasteko aukera izango dute. Martxoan, berriz, ludoteka ibiltaria Erguingo herri eskolara joango da, hango umeen jolas-nahia asetzera.

SANTA AGEDA ABESTERA

Otsailaren lauan, Santa Ageda egunean, hain zuzen ere, Erguingo herri eskolako ikasleak ARRASATE IRRATIAN izan ziren. Kantuan, Aitor Juaristi, Lidia Orduña, Aitor Regaño, Estibaliz Azkoaga, Ainara Asunción, Danel Remirez, Maialen Unanue eta Iñaki Belasko izan ziren, eta Pio Azkarate irakaslea izan zen haiekin. Horrela, etxean edo lanean zebiltzan arrasatearrek Santa Agedako kantuekin gozatzeko aukera izan zuten.





JULEN IRIONDO

Arrasateko San Andres xake taldeko xakelariak, Arrasaten jokatutako azken norgehiagoketan.

XAKEA

Arrasateko San Andres xake taldea, Gipuzkoako txapeldun

Txapelketa amaitzeko jardunaldi bat geratzen bada ere, arrasatearrak txapeldunak dira

XABIER URZELAI

Gipuzkoako Liga irabazteko puntu bi besterik ez zuten behar Arrasateko xakelariak. Aurkaria ez zen gogorra, baina San Andres xake taldekoak ordezko birekin joan ziren Debara, eta berdinketa adostu zuten.

Gipuzkoako Liga eskuratu dute oraingo asteburuan. Txapelketa amaitzeko oraindik jardunaldi bat geratzen bada ere, arrasatearrek alde argia daukate, eta matematikoki txapeldunak dira dagoeneko.

DEBAN, BERDINKETA

Joan den asteburuan, arrasatearrek Debako xakelarien kontra neurtu zituzten indarrak. Etxekoak ordezko birekin joan ziren,

Martin Arriaranek eta Andre Ginart-ek bete zituzten-eta Josu Tornayren eta Isidro Ruizen lekuak. Azkenean helburua bete zuten: txapelketa irabazteko beharrezkoak zituzten puntu biak eskuratzea, alegia.

Denboraldia amaitzeko jardunaldi bakarra geratzen da, eta arrasatearrek ordezkoekin jokatuko dute. Datorren denboraldian Euskal Ligan izango dugu Arrasateko xake taldea.

Mondra futbol taldea banakoarekin konformatu behar izan zen

XABIER URZELAI

Arrasateko erregionaleko futbol taldeak Seguraren, liderraren, etxean jokatu zuen. Ezin esan arrasatearrek kale egin zutenik, baina banakoak zapo gazi-goza utzi zuen. Epailak ere eman zuen zeresana.

Seguran. Etxekoak puntu batekin bueltatu ziren, eta, emaitza txarra ez bada ere, ez zen bidezkoa izan. Epailaren erabakiak ez ziren zuzenak izan: penaltiak adierazterako orduan, zein aretan izaten ziren araberak hartu zituen erabakiak.

Segurakoek penalti bati esker egin zuten bat eta hutsekoa, eta arrasatearrek azken minutuetan lortu zuten banakoa, Muxiren gol bati esker. Par-

tidu amaieran giroa ez zen bate-re gozoa, eta Segurako jarraitzaileek izan zuten zeresana. Arrasateko jokalariren bat ere ez zen isilik geratu.

HAMAR PUNTURA

Arrasatearrek zazpigarren jarraitzen dute, eta aspaldian partidurik galdu ez badute ere, liderra hamar puntura dago. Oraingo asteburuan Pedruskori irabaztea nahitaezkoa izango da.

Arrasateko futbol taldeak denboraldiko partidu garrantzitsuetako bat jokatu zuen zapatuan,

Jonathan Pérez, Euskadiko Txapelketa lehena

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, pista estaliko Euskadiko Txapelketa izan zen. Jonathan Pérez atleta arrasatearra 4,85 metroko jauzia egin, eta txapelketa eskuratu zuen. Geroago eta gertuago ditu 5 metroak.

tan, hain zuzen ere. Arrasatekoak, beste behin, bost metrora iristeko asmoarekin egingo du salto.

Unai Sarabiak, bestalde, 200 metroetako lasterketan hartu zuen parte, eta hamargarren izan zen (22'93).

GIPUZKOAKO KROS TXAPELKETA

Markel Blanco atleta gazteak Azkoitian jokatutako Gipuzkoako Krosean hartu zuen parte joan den asteburuan. Arrasatearra, infantil mailan, hirugarren izan zen, eta brontzezko domina eskuratu zuen.

Markel Blancok sekulako denboraldia egin du, eta hainbat txapelketatan goiko postuetan izan da atleta gaztea. Joan den asteburuan Azkoitian izandako txapelketa eskuratutako hirugarren postuari esker, Euskadiko Kros Txapelketa izateko aukerak izango ditu. Txapelketa hori Martxoan izango da.

FOTOKIROLA



AGR Arrasatek ezin partidurik jokatu

Arrasateko senior mailako talde nagusiak, AGR Arrasatek, Lezon jokatu behar zuen joan den astea. Aurkaria Intxurre taldea zen, eta arrasatearrek esku hutsik bueltatu ziren, baina ez partidua galdu zutelako, partidua jokatu beharreko kantsa okupatuta zegoelako baizik. Senior mailako bigarren taldeak Leizaranen kontra jokatu zuen Musakolan. Arrasatearrek lehenengo 20 minutuetan ondo jokatu zuten, baina azkenean andoaindarrak 14-25 nagusitu ziren. /X.U

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ELKARRIZKETA

JOSU TORNAY/ ARRASATEKO SAN ANDRES XAKE TALDEKO JOKALARIA

"Iaz egin beharreko lana aurten egin dugu: liga irabazi, alegia"

XABIER URZELAI

Xakeak ez ditu komunikabidetan orrialde askorik betetzen, baina Arrasaten kirol horrek eman digu azken poztasuna. Arrasateko San Andres xake taldeak liga eskuratu du, eta hurrengo denboraldian Euskal Ligan izango da. Horretaz guztiaz berba egiteko, Josu Tornay aukeratu dugu, nahiz eta taldea hark eta beste bost lagunek osatzen duten.

Joan den asteko norgehiagokak hasiera baten ez zuen zailtasun handirik.

Ez. Deba taldea sailkapeneko azkeneko postuetan dago, eta mailaz ez jaisteko ari da borrokan. Hortaz, ez zen oso aurkari gogorra.

Puntu bi behar zenituzten liga eskuratzeko, eta azkenean puntu bi ekarri zenituzten Debatik.

Bai. Norgehiagoka hartara talde titularrekin joan izan bagina, seguru asko puntu bi baino gehiago eskuratu izango genituzke. Isidro Ruiz eta biok, azken unean, ezin izan ginen Debara joan, eta ordezko batekin eta gazte mailako xakelari batekin joan zen taldea. Gauzak horrela, taldea nahiko kontserbadorea izan zela esan daiteke. Debakoek berdintzeko proposatu eta taldeak onartu egin zuen.

Horrenbestez, talde biak pozik.


Bai. Guk puntu bi besterik ez genuen behar txapelketa irabazteko, eta haiendako puntu bi eskuratzeko ere oso garrantzitsua zen. Mailaz ez jaisteko lanean dabilta, eta puntu beharrean zeuden. Azken baten, inork ez zuen arriskurik gura, eta emaitza logikoa izan zen.

Aurtengo denboraldian, taula gainean baino areago, bulegoetan izan dituzue aurkari gogorragoak?

Baietz esango nuke, eta oraindik gauzak ez dira konpondu. Dagoeneko apelazioak bueltan etorri dira, eta talde batzuk oraindik ez dira konformatzen. Zarauzko taldeak eta Eibarko jokalariek batek sortu dizkigute arazo guztiak. Zarautz bigarren da sailkapenean, eta gora igotzeko asmoa zuten, taula gainean lortu ez dutena bulegoetan eskuratzeko asmoa dute.

Txapelketa amaitzeko oraindik jardunaldi bat geratzen da.

Bai, baina tentsio bako partiduak izango dira. Alde batetik, dagoeneko txapeldunak garelako, eta, bestetik, aurkariak ez duelako zailtasun handirik. Beraun Bera azkena da sailkapenean, eta dato-



ARRASATE PRESS

"Zarauzko taldea taula gainean lortu ez duena bulegoetan lortzen ahalegindu da"

rrren urtean beheko mailan izango dira, hortaz, haiek ere ez dute ezer jokoan.

Orduan, disfrutatzerajoa gogor zarete.

Bai, tentsio barik jokatzera eta disfrutatzerajoa. Joan den jardunaldian jokatu zuen gazte mailako xakelaria eramango dugu gurekin, Ander Ginart. Jokalari gaztea da eta maila horretan partiduak jokatzeko komeni zaio. Azken baten, txapelketa irabazi dugula ospatzera joango gara.

Hortaz, dagoeneko burua Euskal Ligan.

Egia esatearren, burua aspalditik daukagu Euskal Ligan. Federazioarekin izan genuen arazoa amaitu zenean, eta arrazoia eman zigutenean, argi geneukan txapelketa eskuratzeko genuela.

"Federazioak arrazoia eman zigutenean hasi ginen Euskal Ligan pentsatzen"

Agian azkarregi hasi ginen Euskal Ligan pentsatzen, eta ideia horri buelta asko eman dizkiogu: fitxaketarik egingo ote dugun, zein txapelketa jokatu behar dugun Euskal Liga prestatzen hasteko...

Hala ere, lehen taldea ez da lan ona egin duen talde bakarra izan, ala?

Ez, San Andres xake taldeko bigarren taldeak ere, Arrasate B taldeak, hain zuzen ere, mailaz igotzea lortu du; Gipuzkoako lehen mailan zegoen taldea, eta, bigarren geratu direnez, Gipuzkoako Ligara igoko dira. Arrasate C taldea laugarren geratu da eta promozioa jokatu du. Tamalez, Arrasate D taldea mailaz jaitsiko da.

MENDIA

Besaide elkarteak mendi eski zeharkaldia antolatu du otsailaren 16an eta 17an

Arrasateko Mendi Elkarteak mendi eski zeharkaldia antolatu du otsaileko hirugarren astebururako. Irteera otsailaren 16an izango da, zapatuan, goizaldeko bostetan. Irteera Marcadau ibarran egingo dute, eta izena eman gura duenak otsailaren 11 eta 12a izango dituzte horretarako. Izena emateko Besaideko egoitzara joan behar da, eta derrigorrezko baldintza batzuk daude.

Alde batetik, beharrezkoa da federatua egotea, eta eskialari leke oinarrizko birakuntza egiten jakin beharko dute. Mendi eski materiala norberak eraman beharko du, eta, horrez gain, pioleta eta kranpoiak exijitzen dira. Horrelakorik ez duenak Mendi Elkartearen bertan aloka ditzake.

ERRUGBIA

Arrasate Errugbi Taldeak ezin izan zion bolada onari eutsi Zarautzen

Arrasate Errugbi Taldea denboraldi ona egiten dabil, eta joan den astera arte liderretako bat izan da, bi talde zeuden-eta puntu berberekin. Joan den zapatuan, Arrasateko mutilek Zarautzen kontra neurtu zituzten indarrak, eta etxekoek ez zuten onurako maila erakutsi. Lehenengo zatian jokoa nahiko parekatuta izan zen, eta arrasatearrak partidua eusten ahalegindu ziren.

Bigarren zatian, ordea, gauzak asko aldatu ziren. Zarautzarrak aurrelari azkarrak zituzten, eta talde gogorra zela argi erakutsi zuten. Etxekoek ezin izan zuten gauza handirik egin, eta azkeneko zarautzarrak 33 puntuko aldea eskuratu zuten, 10-23 izan zen-eta emaitza. Arrasatekoek hurrengo partidua etxean jokatu dute, eta orduan, gauzak bestelakoak izango dira.

FUTBOLA

Mondrako neskek goiko postuetan jarraitzen dute, Ilintxari 2-1 irabazi eta gero

Mondra taldeko neskek Ilintxaren kontra jokatu zuten joan den zapatuan, eta etxekoak 2-1 nagusitu ziren. Partidua belarrezko zelaietan jokatu zuten, eta Arrasateko neskek bikain moldatu ziren.

Mondragoeko futbolariak laugarren dira sailkapenean, eta lehen fasea amaitzeko hiru norgehiagoka falta dira. Oraingo asteburuan, neskek atsedean hartuko dute; horrela, Aratusteez gogorago izango dute.

Otsailaren 17an, Bergararen kontra jokatu beharko dute. Amaikak Bat taldea izango da hurrengoa. Lehen fasea amaitzeko, aurretik, Arrasateko neskek liderraren kontra jokatu beharko dute, Mutrikuren kontra, eta partidua gogorra bezain erakargarria izango da.

Hemengo enpresen dirua, hemengo taldeei laguntzeko

XABIER URZELAI

sinatuko dute.

Gaur egungo kirol taldeek aurrera egin dezaten, beharrezkoak dira enpresek ematen dituzten dirulaguntzak. Ibarrean enpresa asko dago, baina haiek ematen dituzten dirulaguntzak ez dira beti hemengo taldeendako izaten.

Hemengo enpresek kirolerako ematen duten dirua ibarreko taldeei zuzentzeko dabil lanean Debagoieneko Mankomunitatea.

Jakina da Gipuzkoako goi mailako kirolari gehienak Donostia aldean daudela. Ondorioz, Debagoienera diru gutxi iristen da. Horrez gain, ibarreko kirolari batek Donostia aldeko kirolari batek baino arazo eta zailtasun handiagoak izaten ditu kirolerako aurrera egiteko.

Arazo horri aurre egiteko asmoz, Debagoieneko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Kirolgi Fundazioak hitzarmena

KIROLGI FUNDAZIOAREKIN HITZARMENA
Kirolgi Fundazioa, besteak beste, Gipuzkoako Diputazioak bultzatutako fundazioa da, eta Gipuzkoako kirol taldeei bultzatzen laguntzen asmoarekin sortu zen.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Kirolgi Fundazioak sinatu duten hitzarmenari esker, aurrerantzean, ibarreko enpresek kirolerako emango dituzten dirulaguntzak hemen geratuko dira. Hau da, ibarreko kirolari taldeei laguntzeko erabiliko da.

Dirulaguntza horiek ez dira oinarrizko eskola edo eskola kirolerako izango; bai oinarrizko talde federatuendako. Hitzarmen horrekin, Debagoieneko Mankomunitateak beste zenbait enpresa ere espero du: ibarreko enpresek dirulaguntza handiagoak ematera animatzea. Azken batean, diru hori hemengo kirolari taldeei eta kirolariei bultzada ematen izango da-eta.

Mozorratu eta ospatu geurean!

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

CAFÉ

**I
M
A**

KOMITZEZINO KALEA 14

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

**ESKIÑA
taberna**

Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20

**RUMBA
TABERNA**

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



Itzala

Iturriotz kalea, 19
943 77 30 29

DISCO-BAR



Disco-Bar Gureleku

Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29



Nerea

Erdiko kale 28 Tel: 943 79 13 43



Eklipse

Biteri Etorbidea 15 Tel: 943 77 02 69



Zubizarreta / Galeria 44

Zerkaosteta 8 Tel: 943 79 90 50



Oparitu edertasuna zure maiteari

Amagara

Erdiko kale 54, behea. Tel: 943 79 09 09



ea

l: 943 79 12 05



Irribarrea sorrarazi
zure maitearengan

Lore

Olarte 10 Tel: 943 79 52 50



Lorerik ederrena zure
maitearentzat

Marivi Loradenda

Alfonso X Jakintsua 5. Tel: 943 79 15 59/79 81 54



Laket

Otalora z/ g Tel: 943 79 82 68



Sikol

Olarte 31 Tel: 943 79 89 32

Aratusteak giro onenean!



ALDAPE
Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

Ez gaude denok

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TLF. 943 711768

Jai Zale Taberna ★
Olarte 37, Behea Tel.: 943 796 792 Arrasate
ARRASATE *Giro Desberdin Bat!*

ETXERAT TABERNA


ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA!

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62



JULEN IRIKONDO

Kenci Arrasateko jokalariek azken laurdenean atera zuten partidua aurrera.

SASKIBALOA

Igoera faseko lehen garaipena, Calahorraren kontura

Kenci Arrasateko azken laurden ikusgarria egin zuten, eta Calahorrari gailendu zitzaion

XABIER URZELAI

Kenci Arrasate saskibaloitza taldea 66-60 nagusitu zitzaion zapatuan Calahorra taldeari. Arrasatekoek azken laurdenean erreakzionatu zuten, eta oraingoan ez zen berandu izan.

Kenci Arrasate taldeak, kostata, igoera faseko lehen garaipena eskuratu du. Aurkaria Calahorra


talde errioxarra izan zen, eta, hasierako bi laurdenak ikusita, bazirudien etxekoei beste partiduko batek ihes egingo ziela. Ez zen horrela izan. Hirugarren laurdenean kanpotarrek 15 puntuko aldea zeukaten, baina etxekoek azken laurdenean oso joko ona egin zuten.

Defentsan ahul eta erasoan makal aritu ziren, baina laugarren laurdenean arrasatearrek

jokoa azkartu, defentsa gogortu eta saskiratzeak egiten hasi ziren. Joko aldaketa horri esker, arrasatearrek, partidua berdintzeaz gain, sei puntuko aldea ere lortu zuten. Eta, horrela, partidua irabazi zuten, igoera fasean irabazten duten lehenengo partidua.

Oraingo asteburuan, etxekoek Caja Rural Ardoi taldearen kontra jokatuko dute, Iturripen baita ere.

FOTOKIROLA



Udaberri Txapelketa gaur, Uarkapen

Arratsaldeko zazpiketarik aurrera, herriko pilotariek Udaberri Txapelketako norgehiagokak jokatu dituzte Uarkape pilotalekuan. Gazte mailako pilotariek Añorga-koen kontra neurtuko dituzte indarrak, eta senior mailakoek aretxabaletarrak izango dituzte aurrez aurre.

Eguaztenean, Debarroko Txapelketako partidua jokatu ziren, eta Arrasateko eta Eskoriatzako pilotariak izan ziren aurrez aurre. Kadetetan, Jiménezek eta Gozalok 8-22 galdu zuten. Gazte mailan, nahiz eta partidua parekatua izan, Agirrek eta Uribarrenek 19-22 galdu zuten. Seniorrak erraz nagusitu ziren: Zugastik eta Errastik 22-5 irabazi zuten. /X.U

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Saukelu Scream	6-3
Aurrera Bolie - Bazar Toki On	9-0
Rayo Aldeano - Fragel Gol	3-3
Chapime Dribling - Estu Ta Larri	2-2
Bikain Akad - Goma 2	4-5
Usotz Potroak - Txotx	2-1
Iritz Taberna - Maldifa's	16-1
Makanaki - Lasagabaster	2-2

B MULTZOA

Irati STS - AC Surcos	6-4
Etixerat - Bin Laden	6-3
KJ Basati - Komando Alpargat	4-6
Full Duplex - I.K.P.	5-3
Azkena You Know - E.G.D	16-0
Etxina! - AKTA	2-5
Irati STS - Koka Junior Basati	5-4

PARTIDUAK

OTSAILAK 9, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Azkena YK - Etxina! - Lasagabaster
10:00: Usotz Potroak - Lasagabaster - Etxina!
11:00: Etixerat - AT Celaya - Usotz Potroak
12:00: Txotx - Chapime Drib - Etixerat
13:00: AC Surcos - K. Alpargat - Chap Dribli
14:00: KJ Basati - D.D.K. Komando Alparg
15:00: I.K.P. - Irati STS - KJ Basati
16:00: Irati STS - Bin Laden - I.K.P
17:00: Betrayer - Bazar T.O. Bin Laden
18:00: Rayo Aldeano - Goma 2 - Betrayer
19:00: Bikain Akad - Maldifa's Rayo Aldea

OTSAILAK 10, DOMEKA

09:50: Full Duplex - AKTA - Aurrera Bolie
11:00: Aurrera Bolie - Estu Ta Larri - AKTA
12:00: Iritz Tab - Makanaki - Estu Ta Larri
13:00: Saukelu Scre - Fragel Gol - Makanaki
14:00: Abocajarro - E.G.D. Saukelu Scream

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	19	11
2. Iritz Taberna	18	11
3. Goma 2	18	11
4. Chapime Dribling	18	11
5. Betrayer	14	11
6. Rayo Aldeano	12	11
7. Usotz Potroak	12	10
8. Aurrera Bolie	11	11
9. Lasagabaster	10	11
10. Estu Ta Larri	9	10
11. Makanaki	8	10
12. Fragel Gol	6	11
13. Saukelu Scream	6	10
14. Bazar Toki On	5	11
15. Txotx	4	11
16. Maldifa's	2	11

B MULTZOA

	P	J
1. Etixerat	20	10
2. Azkena You Know	20	11
3. AT Celaya	16	10
4. Irati STS	14	9
5. AC Surcos	13	10
6. I.K.P.	12	10
7. Bin Laden	11	10
8. D.D.K.	9	9
9. Komando Alpargat	9	10
10. Koka Junior Basati	6	10
11. E.G.D	6	10
12. Abocajarro	5	10
13. Full Duplex	4	10
14. AKTA	4	11
15. Etxina!	1	10

ZIGORRAK BETE EGIN BEHAR DIRA

IRATI STS TALDEAK ZAPATUAN BI PARTIDU JARRAIAN

Azken asteotan, Irati STS taldeko jokalariek nahi beste partidua jokatzeko ari dira. Atzeratutako hainbat hitzordu zituzten, eta horiek lehen fasea amaitu aurretik jokatu behar dituzten, azken asteburuetan zapatu eta domeketan izaten dituzte partidua. Joan den astean bi partidua irabazi egin zituzten, beraz, oraindik ere sasoiaren daude.

SAUKELU SCREAM ETA BIN LADEN TALDEKO JOKALARI BAT, ZIGORTUTA

Saukelu Scream taldeko jokalariek batek lau partiduko zigorra zeukan, eta, itxuraz, ez du zigor hori bete. Hori dela eta, jokalaria txapelketatik bota dute, eta Saukelu Scream taldeak fidantza galduko du. Berriz jokatzeko badu, talde osoa botako dute. Bestalde, Bin Laden taldeko jokalariek bati partidua bateko zigorra ezarri diote.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Arrasate - Euskalduna
Ohor. Gazt. Zapatuan. 11:30. Atxabalpen.
Arrasate - Real Sociedad
Ohor. Kadet. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

Gainerako taldeek deskantsua dute.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Caja Rural Ardoi
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Etxadi-Easo - Kenci Arrasate
Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Kanpoan.
Gainerako taldeek deskantsua dute.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Urola
Seniorrak. Domekan. 11.45. Iturripen.
Urnieta - Arrasate
2. seniorrak. Zapatuan. 12:30. Urnieta.
Arrasate - Loiola
Gazteak. Domekan. 10:15. Iturripen.

ERRUGBIA

Deskantsua dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Segura - Mondra	1-1
Ohor. gazte maila: Urola - Mondra	0-1
2. mailako gazteak: Danena - Arrasate	5-2
Neskak: Arrasate - Ilintxa	2-1
Infantilak: Antiguoko - Arrasate	6-0

ERRUGBIA

Zarautz - Arrasate	43-10
--------------------	-------

SASKIBALOA

Seniorrak	
Kenci Arrasate - Calahorra	66-60
Juniorrak (mutilak)	
CD Internacional - Kenci Arrasate	63-52
Juniorrak (neskak)	
Kenci Arrasate - Aldapeta	15-74
Kadeteak	
Etxadi Easo - Kenci Arrasate	57-63

PILOTA (DEBARROKO TXAPELKETA)

Kadeteak: Arrasate - Eskoriatza	8-22
Gazte maila: Arrasate - Eskoriatza	19-22
Seniorrak: Arrasate - Eskoriatza	22-5

Madrilgo Yllana taldeak 'Rock&Clown' eskainiko du domekan Amaia antzokian

Yllana taldeak musika eta antzerkia uztartuko ditu 'Rock&Clown'-en

IKER BARANDIARAN

Madrilgo Yllana antzerki taldeak azken lana eskainiko du domekan, 19:30ean, Amaia Udal Antzokian. *Rock&Clown* lanean zuzeneko musika eta clown modernoak nahasten dituzte, betiere, umore beltz eta ganberroaz.

Yllana antzerki taldea 1991. urtean sortu zen, Madril. Talde horretako partaideek eskola handia dute antzerkian, eta dagoeneko *Muu!* (91), *Glub Glub* (94), *666* (98), *Hipo* (99), *Rock&Clown* (00) eta *Spingo* (01) lanak taula gainean antzeztu dituzte.

Antzezlanetako batzuk alde batera utzi dituzte, baina azkeneko lau lanak ikusgai daude oraindik eszenatokietan, batez ere, *Rock&Clown* eta *666*. Azken hori, gainera, une honetan Espainiako Estatuan bai eta atzerrian ere antzezten ari dira hainbat aktorek.

Rock&Clown lanean lau musikomikok hartzen dute parte: Chus Herrerak, Ramon Merlok, Marc Nef-ek eta Orlando



Valenzuelak. Yllana taldearen antzezlan guztiak bezalaxe, *Rock&Clown* ere umore beltzez hornitutako ikuskizun komikoa da, ganberroa eta urratzailea.

Aktore musikariek zuzenean egiten dute musika: gitarrak, baxua eta perkusioa, hain zuzen ere. Rocketik boleroetara, sal-satik klakera, flamenkotik heavy

metalera...

Musikaz gain, zirkuko ikuskizunak, panpina beldurgarriak, armadaren inguruko parodiak eta beste hainbat gai eta elementu uztartzen dituzte, eta, betiere, umore apurtzaile eta garratza nagusitzen da. Barregurazko kontzertu antzeztua, hain zuzen ere.

Yu-Yu taldeak 'Esperantooo' lana antzeztuko du otsailaren 15ean

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, otsailaren 15ean, 23:00etan, Yu-Yu taldeak *Esperantooo* antzezlana eskainiko du Arrasateko Jai Zale tabernan. Lan elebidun horrek ikusleek barre egitea lortuko du seguruenik.

Yu-Yu antzerki taldea 1996. urtean sortu zen, Donostian, baina partaideak herri askotakoak

ziren. Dagoeneko hiru antzezlan egin dituzte (*Konplot*, *Vacilus* eta *Esperantooo*). Azkenaurrekoa La Burla antzerki taldearekin lankidetzan, eta azkena, orain antzezten ari dira.

Esperantooo antzezlana duela urte eta erdi estreinatuta zuten, eta taldeko bost partaideek antzezteaz gain, eurek daukate beste lan guztien ardura dagoeneko berrogeita hamar eszenatokitan antzeztu izan dute berau. Bi eratan plazara deza-

kete: bata, gaztelania hutsean, eta bestea, euskaraz eta gaztelaniaz. Arrasaten euskaraz eta gaztelaniaz egingo dute. Lan honetan, Legaleon T antzerki taldeko Espe Lópezek zuzendari lanak bete zituen.

TESTUA ETA GORPUTZ KOMUNIKAZIOA

Yu-Yu antzerki taldeko partaideek azaldutakoaren arabera, eurek egiten duten antzerkia kafe-antzerkia da: "*Esperantooo* tamaina txikiko lana da, tabernetan eta antzeko txokoetan antzezteko aproposa".

Berrogei bat minutu irauten duen lan horrek lau pertsonaiaren gorabeherak kontatzen ditu, edozein gizakiren bizitza errearlari egokituta, betiere, umore kutsuarekin.

Yu-Yu antzerki taldeko partaideen esanetan, antzezlan horretan, aktoreek ikasi beharreko testuen bidez informazioa emateaz gain, gorputzaren bitartez ere asko transmititzen dute. Hori nabarmendu dute.

Bestalde, *Esperantooo* lana euskaraz eta gaztelaniaz antzezteko arrazoiak Euskal Herrian bizi dugun errealitatean oinarritzen dute Yu-Yu taldekoek. Azken batean, euskaraz eta gaztelaniaz bizi garelako.

KULTURAPILULAK

Martitzenean, Aratusteak ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian

Aurten ere, Aratusteak ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian. 18:00etan, Auskalo taldearekin kale animazioa izango da. Ordu berean, Samasiku txaranga kalera irtengo da. 19:00etan, Arrasateko erraldoi eta kiliekiek kalejira egingo dute. 19:30etik 21:30era, berriz, Eguzki taldearekin dantzaldia izango da herriko plazan. Atsedean hartu, eta 22:30ean berriz igoko dira taula gainera Eguzki taldekoak. Bukatzeko, 23:30ean, Sardinen Hileta egingo dute herriko plazan, kalejiraren ondoren.

Jokin Rodríguez artistak margolan erakusketa zabalduko du gaur Gure Leku

Jokin Rodríguez artista arrasatearrak margolan erakusketa zabalduko du gaur Arrasateko Gure Leku tabernan. Jokin Rodríguez-ek Gure Leku tabernan egiten den margolan lehiaketa ospetsua irabazi zuen iaz. Hala ere, hori ez da Jokinek irabazi duen lehiaketa bakarra. Hain zuzen ere, 1995. urteko Aratusteen kartel lehiaketa ere irabazi zuen. Jokinek, batez ere, olioak egiten ditu. Margolan erakusketa otsailaren 8tik martxoaren 1era arte izango da.

Udaleko Gazteria Sailak eta Txalaparta Taldeak txalaparta ikastaroa prestatu dute

Udaleko Gazteria Sailak eta Arrasateko Txalaparta Taldeak, lankidetzan, txalaparta ikastaroa antolatzea erabaki dute. Aurreko urteetan moduan, aurten ere, Musakolako saloian egingo dituzte hastapen eta sakontze mailak. Otsailaren 15etik maiatzaren 17ra arte ikasiko dute txalaparta jotzen. Egubakoitzean, 20:00etatik 22:00etara eta zapatuetan, 11:00etatik 12:00etara. Matrikula hamazortzi euro izango da (3.000 pezeta). Hamabi euro (2.000 pezeta) ikasle eta langabeendako. Izena eman Gazte Bulegoan.



Irudian, *Zelenina* eta *Pibo*, ikuskizunaren protagonistak.

Zirko Ttipiak 'Txalozirkus' ekarriko du Mondragoera

IKER BARANDIARAN

Martitzenean, Aratusteei merezitako ongietorria egiteko, Iruñeko Zirko Ttipia taldea etorriko da Mondragoera. 17:00etan izango da, Amaia Udal Antzokian.

1992. urtean sortu zen Zirko Ttipia, Nafarroako Malabaristen Elkartearen baitatik. Zirko berriaren ildoak erakarri eta malabarrak eta clown-a zelanbait nahastea erabaki zuten. Zirkoaren eta malabarren ikuskizunei espresio eta emozioak gehitu zizkieten. Betiere, umorea da nagusi.

Txalo Zirkus ikuskizuna kalean eta plazetan antzezteko egina ei dago, adin guztietako jendearendako. Eta lan horrek malabarrak eta ikuskizun trinkoak dituen arren -diaboloa, mazoak, monozikloak, eta abar-, inprobisazioari ere aukera utzi nahi diote, eta edozein elementu erabiltzeko gai dira.

Zirko Ttipia taldeko *Zelenina*-k eta *Pibo*-k ikusleen parte hartzea bultzatuko dute: musika joz edo dantza egitera atereaz, adibidez. Bestalde, ikuskizuna euskaraz egingo dute, eta elkar-riketa ulerterrazak izango dira komunikazioaren mamia.



kafe antzerkia

Esperantooo

"Lau elitze elkartu eta hitzasperuan hasten direnean... ez dago halako porrusalda azalduko duen errezetarik"



E, TXO!

GAZTETXEKOEK, TXOTXI!

AGAKOk sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 2rako. Goizean irtengo dira, sagardotegi baten bazkalduko dute eta iluntzerako bueltan izango dira. Iragarritako eguna urrun badago ere, izenematea otsailaren 1ean edo 8an egin beharko da, 22:30ean, gaztetxean egingo den batzarrean. Izena ematean, mila pezetako fidantza ordaindu beharko da.

EUSKAL DANTZAK

Gaztetxean euskal dantzen ikastaroa antolatu dute otsailaren 24tik aurrera. Domekero izango da, eta doan. Gaztetxean bertan agertzea nahikoa da. Antolatzaileek gauza bakarra eskatzen dute: ikastaroari jarraipena emateko erantzukizuna hartzea.

MUSIKA EMANALDIK

Asteburu honetan ez da musika emanaldirik egingo, baina, dagoeneko, otsailaren 15erako kontzertua antolatu dute gaztetxean. Hain zuzen ere, Madrilgo Sarcastic Bombs eta Bergarako Cool Panic punk eta rock-and-roll taldeak arituko dira.

LUDOTEKA IBILTARIA

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak ludotekarik ez duten auzoetarako ludoteka ibiltaria eramateko ahaleginetan jarraitzen du. Ekimen horren barruan, otsailaren, zapatuetan, 11:30etik 13:00etara ludoteka ibiltaria egingo dute Musakolako Herri Eskolan.

TXATXILI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdik urtean barrena antolatzen dituen ekintzetarako begirale taldea osatu gura du. Interesatuok, jo Pablo Uranga kaleko egoitzara.

GUREGAIK/ ANTZERKI KOMIKOA

Matxinek barregurazko antzerkia, mimoa eta 'clown'-a nahastuko ditu

IKER BARANDIARAN

Oraingo domekan, antzerkia ikusteko aukera bat baino gehiago izango dira. Amaia Udal Antzokian Yllana taldea arituko da eta gaztetxean, berriz, Matxin. Emanaldi hori 18:00etan izango da.

Iturenen jaio eta Iruñean bizi den Matxin artistak ibilbide luzea egin du dagoeneko. Izan ere, Italian, Bartzelonan eta gure artean antzerkiarekin eta clown-arekin lotutako hainbat ikasketa egin ditu. Gerora, berriz, telebistan eta antzerkian lan esker-ga egin du.

AZKEN LANA AURKEZTUKO DU

Aspaldian, berriz, bere kasa dabil

*Matxinen antzezlanak
Matxinen beraren bizipenetan dago oinarritua*

lanean, eta *Ni, ni neu naiz* antzezlanak aurkeztu ditu Euskal Herrian barrena.

Antzezlan horretan, Matxinek barregurazko antzerkia, mimoa eta clown-a nahastu ditu. Antzezlan hiru istoriotan banatzen da, eta hirurek abiapuntu bera dute: lana Jainkoaren zigo-



ARRASATE PRESS

Domekan, 'Ni, ni neu naiz' antzezlanak aurkeztuko du Mondragoan.

rra dela. Era berean, antzezlanen kontaketa diren pasarteak Matxinen beraren bizipenetan

daude oinarrituta. Hortaz, hor daukazu gonbidapena: domekan, gaztetxean, 18:00etan.

LOTSABARIK/ Beñat Unzueta

"Herrian taberna heavyak falta dira"

IKER BARANDIARAN

Beñatek ez ditu batere gustuko honen moduko elkarrizketak, baina oso eskertzekoa da animatu izana. Hala ere, Anger taldearekin zuzenean jotzeko ez ei du lotsa handirik izaten; ez dirudi, behintzat.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Txikitan ez dakit, baina gero, musikari profesionala izan gura nuen. Auskalo beteko ote den, baina bitartean beste gauza batzuk ikasten nabil.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ile gutxirekin. Horrez gain,

ezkonduta eta gauza horiek guztiak. Eta, ahal badut, Anger taldean, musikari. Utopiak!

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Hogeitaz urte. Oraindik askatsun handia daukazu; eta, aldiz, erantzukizun gutxi.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Laguntasunari eta musikari.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Munduaren egoerak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok. Oso lotsatia naiz konfiantzarik ez dudanekin. Era berean, hasieran taula gainean urduri jartzen nintzen, baina orain oso gustura ibiltzen naiz.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Rock giro handiagoa tabernetan, eta taberna heavy batzuk. Nire gusturako bai, behintzat.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Betaurrekoak. Nire gorputzeko atala dela esan dezaket, hiru urte neuzkanetik daramatzat eta ezin ditut kendu. Horiek barik biluzik sentitzen naiz. Ez daukat operatzeko asmorik.

• Musakolan ligatzen da?

Musakolan ez, denak Arrasatera joaten dira. Asko saiatuz gero, lortzen duzu.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Begiei. Bestela, orokorrean.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Ingeniaritzako lehenengo maila • **ZALETASUNAK:** Musika, ordenagailuak eta lagunekin egotea
LIBURU BAT: Musika aldizkariak irakurtzen ditut • **FILM BAT:** 'Seven' • **MUSIKA TALDEA:** Judas Priest • **KIROL TALDEA:** Reala

LANDALUZE
HARATEGIA-URDATEGIA
ESPEZIALITATEA: ETXKO ODOLOSTEAK
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

BEHEKO DENDATIK

Rosarito Zeziaga

CECIAGA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Rosarito, Maria Rosario izenez, 46 urte daroie Ceciaga dendan lanien. Laster 100 urte beteko dittuen denda horrek ondo jakin dau sasoi bakoitzera moldaketan, eta urte honeitan danetik saldu daue. Oin Karnabalekin dabitz buru-belarri. Mondraguen disfrazetan ez dana, gure ez dauelako ez da disfrazetan.

Amets bat?

Pakie.

Amets txar bat?

Bizi dogun egoerie.

Egin dozun azken biak?

Frantziako Polinesiarra.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei.

Eta gorrixe?

Hori be eurei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Memorias de Africa / El viaje de Teo / Edith Piaff.

Drogak legalizauko zittukie?

Ez dauket oso argi, baiñe baietz uste dot. Droga trafikua bukatetako balixoko leuke, baiña iguel larregiko eskuragarri egongo litzake drogie.

Eta prostituziñue?

Bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue, tabernetan egoten dan giruagaittik. Diskoteketan berbarik be ezin leike egin.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Ahaleginduko nitzake komertziumendako peatonalizaziñuaren arazue konponketan.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez dauket idearik be.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Frantziako Polinesiar ezagutu neuen pertsona nagusi bat.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Livingstone medikue.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Robert Redfort-ekin.



"Laster ehun urte egingo dittu dendiak, eta zeozer egingo dogu, seguru gainera."

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Dokumentalak gustetan jat. Irratixen, goizetan albistegixek, eta gabien *Levando anclas* edo *La casa del padre*. Biakien inguruko programak die.

Zenbat gazte etorten da kantontzilluek erostera?

Geruago eta gazte gehixago. Kantontzillo klase asko dago, eta amak ez dauenez azertetan, eurak etorten die.

Barruko erropetan be, marka billa etorten da jentie?

Bai, jente gaztie, batez be. Hori be modan dau-eta.

Karnabaletan dezente salduko dozue, ala?

"Lehenengo aldiz disfrazau gitzenien, batzuek uste izen euen Mondraguera zirkue aillega zala"

Bai. Geruago eta gehixago. Traje mordo bat daukogu, tailla gutxitakuek.

Eta zeuok disfrazetan zarie?

Bai, urtero-urtero. Ines eta ni izen gitzen Mondraguen lehenenguek, oin dala urte asko.

Garai baten antiojuek be saltzen zittuen.

Bai, antiojuek, kuku erlojuek... Baiñe neu ez naz akordetan. Orduko antiojo polit batzuk gordeta dauket.

Eta domeketan goixeko sei-retain zabalketan zan dendie.

Bai, eta orduen saltzen zan gehixen. Auzuetatik mezetara bajetan zien, eta meza ostien erosketak egitten zien.

NIREBIDAIAHURA/ Iban González

Maldivak eta Jamaika / 2001eko udaberrian eta udazkenean

Iban González lanari esker paraje ikusgarriak bisitatzeko horietakoa da. Gura baino gutxiago, seguru, baina aukeraren bat izan du, behintzat. Eta aukerara horiek bikain aprobetxatu ditu, nahiz eta lanean leporaino egon. Errealizadore gazte honek, joan den urtean, Maldivak eta Jamaika bisitatzeko aukera izan zuen. Hainbat erreportaje grabatzeko asmoarekin abiatu zen aretxabaletarra, eta bi bidaiak horietan paraje ikusgarriak ikusteko eta hainbat kultura eta herri ezagutzeko aukera izan du. Horrelako bidaiak errentagarriak izateko, gogor egin behar da lan: "12-16 ordu pasatzen genituen lanean, eta, lanean genbiltzan bitartean, horretaz guztiaz gozatzeko ahalgina egiten genuen".

Maldivetan polizia bat izaten zen eurekin, 24 orduan: "Oraindik ez daukat argi gu babestu edo besteak gutaz babesteko zen". Kostata, baina azkenean Male hiriburuan grabatzea lortu zuten. "Bazirudien ez zitzaiela komeni hiriburu erakustea, baina hantxe lortu genuen material politena". Uharte haietako emakumearen egoerak harritu zuen Iban, eta hango parajeek ere bai.

Jamaikan bizi izandakoak ere ederki gogoratzen ditu Ibanek. Hango bizi kalitatea ez da batere ona, eta azal zurikook ez ei gara ongietorriak. "Normala ere bada. Adibidez, Jamaikan gauza mordo bat filmatu dira, erreportajeak, film famatuak, eta haiek ez dute ordainetan ezer jaso. Kamera ateratzen genuenean, azalpenak eman behar genituen, eta behin baino gehiagotan korrika ere egin behar izan dugu". Milaka plano eta irudi erakargarri ekarri zituen bidaiak haietatik Ibanek, baina, seguru asko, han bizi izandakoak gehiago balio du.

XABIER URZELAI



Maldivar irla bat hidrohegazkinetik ikusita.

"Bidaietan lo gutxi egiten nuen. Guztia aprobetxatu behar zen-eta"

"Behin baino gehiagotan korrika egin behar izan genuen"

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Altzariak
Diseinua
ApainketaM
ARENAZABizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Egunero paseatzea oso garrantzitsua da. Ariketa fisikoa egiteaz gain, kanpora irten eta lagunekin egoteko aukera ematen du.

Ondo eta garbi jan, ur asko edan eta egunero paseatzea, oso aproposak

IKER BARANDIARAN

Aurrekoan ere, Roman Balantzategik hirugarren adinaz eta osasunaz egin zuen berba Arrasate Irratian, eta guk Romanek elikaduraz eta kirolaz edo ariketa fisikoaz kontatutakoa batu dugu. Badirudi oraingoz Romanek jai hartuko duela bolada labur baten. Horrela, eskerrak eman bahi dizkiogu, hirugarren adinakoen tzako emandako aholkuengatik.

Romanen esanetan, egun daukagun diru eta kultura maila ona izanda ere, ez dugu ondo jaten. Hain zuzen ere, Romanen ustez, hirugarren adinekoren %10-15ek oso gaizki jaten dute. Hainbat arrazoi gaineratu zizkion datu horri: gazte garaietako ohitura txarrak ez aldatu izana; bizimodu geldikorragoa eramateagatik, ez arduratzea jaten denarekin; sendagai batzuek urdailari kalte egiten diotela; haginaren arazoa; eta bakardadean bizi izanagatik janak prestatzeko ilusio handiagoa izatea, besteak beste.

Hartu beharreko kaloria

kopuru ertainari dagokionez, hirugarren adinean, 50-60 urteko emakume batek egunero 2.000 kilokaloria hartu beharko lituzke. 60 urtetik gorako batek, 1.800-1.900 kilokaloria. Gizonen kasuan, berriz, 50-60 urte artean 2.700 kilokaloria, eta 60 urtetik gora, 2.400. Hiru kaloria mota daude: azu-

Paseatzea oso garrantzitsua da

Ariketa fisikoa egin, bakardadea borrokatu, kalera irten eta haizea hartzen duzu. Horrela laburbiltzen ditu Romanek paseoaren onurak. Hirugarren adinean lo egitea gaitzagoa izaten da, eta, horregatik, siesta egin beharrean paseatzea aholkatzen du, gauez hobeto lo egiteko. Egunero bost kilometro edo ordubete paseatu, eta korrikarik ez egin.

kre eta karbohidratoetatikoak, proteinetatikoak eta koipeetatikoak. Azukre eta karbohidrato kopurua zaintzea komeni da. Proteinei dagokionez, horien erdia animalia-proteinak izatea komeni da. Koipeei dagokionez, onenak arrain eta fruitu sikuenak dira.

PROPOSATUTAKO DIETA

Romanek aholkatutako dieta honakoa da: esnea eta esnekiak litro erdi egunero (gazta asteen lau aldiz); okela hiru bider asteen; bost bat arrautza asteen; barazkiak egunero (entsalada barne); lekaleak hiru aldiz asteen; pasta bi bider (arroza barne); eta bi pieza fruta egunero. Horrez gain, Romanek proposatzen du egunero bost jatordu egitea: "Onena gutxi eta sarri jatea da. Gainera, normal jaten duenak ez dauka bitamina ezta mineral premiarik ere, gaixotasunik ez badauka, behintzat".

Urak ere garrantzi handia du: "Adinarekin egarria murriztu eta apur bat deshidratatu egiten dira. Egunean litro eta erdi ur edan behar da".

ZAHARRENAHOTIK

Juan Periko Azkoaga

ABAROAREN SORTZAILEETAKO BAT

Juan Periko 1911ko apirilaren 27an jaio zen, Iturriotz kalean (gero, Resusta jarri bazioten ere), Euskadiko Kutxa dagoen eraikinean.



Ikasle ona zinela esaten dute...

Udal Eskolan, ikasle garaietan, irakasleak laguntzaile hartu ninduen. Elizmutil ere ibili nintzen eta sakristau lanak egitea ere tokatu zitzaidan, hura Afrikako gerrara joan zelako. Gero, hamabost urterekin, Bergarako Domingotarretara joan nintzen, Merkataritza ikastera. Han tifus izurriak harrapatu ninduen eta berrogei egunez ura eta limoia besterik ez nuen hartu.

Gerora, administraritz lanetan hasi zinen?

Bai, Bergaran ikasi ondoren, Banco Guipuzcoanon praktikak egin nituen. Gero, 1928an, Union Cerrajerako bulego baten hasi nintzen lanean, 1934ko Urriko Iraultzan langile guztiak kalera bota gintuzten arte. Hurrengo egunean, Union Cerrajerako nagusi batek, Ricardo Azkoagak, dei-

tu egin zidan langileen lista egiteko.

Gerra bizi izan zenuen...

Bai, bi alditan fusilatu gura izan ninduten. Larrienean, Udaletxeko ziegan nengoela, anai nagusiak askatu ninduen. Geroago, frontera jo nuen, lehenengo Loiolara, eta gero, Bergarara, Durangora eta Asturiasera. Eta Asturiasen kanoi-kada bat alboan jausi eta heriotzaren atarian egon nintzen, burezur-haustura osatu arte.

Gero, 61 urte arte lan egin, eta Abaroa sortzeko batzarretan hasi ginen. Abaroa izena, adibidez, neuk asmatu nuen.



Iturbide egoitzan dauden uribarriarrak

Uribarri zahar egoitzako arduradunek Iturbide egoitzan bizi diren hamaika auzotar ohiak omendu eta opari bana eman zizkieten astelehenean. Nagusia Rafaela Etxaurren da.

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ARRASATE
Ainhoa Arana
Otsailaren 13an, 5 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Naiara Salaberri
Otsailaren 12an, 5 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Mario Jurado
Otsailaren 11n, 5 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoaren partetik.




ARRASATE
Raul Jiménez
Otsailaren 9an, 25. urte.
Zorionak, lagunaren partetik.



ARRASATE
Naiara Canelo
Otsailaren 9an, 3. urte.
Zorionak, amaren partetik.



ARRASATE
Garazi Mujika
Otsailaren 9an, 12. urte.
Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Mario Jurado
Otsailaren 11n, 5 urte. Ea hanka osatzen den. Zorionak, familiakoaren partetik.



ARRASATE
Olatz Belastegi
Otsailaren 8an, 11. urte.
Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Nahia Zeziaga
Otsailaren 12an, 8. urte.
Zorionak! Ibai, aita, ama eta etxekoaren partetik.



ARRASATE
Nagore Martínez
Otsailaren 5an, 22. urte.
Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Nerea Ugalde
Otsailaren 8an, 12. urte.
Zorionak, lagunaren partetik.



ARRASATE
Mikel Luri
Otsailaren 14an, 24. urte.
Zorionak, Luri! TMT.




ARRASATE
Leire Sarobe
Otsailaren 5ean, 27. urte.
Zorionak, gazte! Zure pisukide kuttuna.



ARRASATE
Sali Francho
Otsailaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! "La Peña".



ARRASATE
Katalina Arregi
Otsailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, lagunaren partetik.



ARRASATE
Naia Ijorra
Otsailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, aita, ama eta Izarren partetik.

ADI!

Hurrengo zenbakian, **otsailaren 9tik 22ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA

GRAN LUJO INDEX **PROMOZIOA**
ZURE ARGAZKIAK HANDIAGO



13X19cm-koak
10X15 cm-ko
prezioan



Kalitate bermea

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18



Ile apaindegirako artikulua

Kontzeziño, 4. behe
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Ateak zabalduko dizkizugu



HAUXE IRAKURTZEN ZABILTZA? ORDUAN GURE MEDIOAK ERAGINKORRAK DIRA.

EGIZU PUBLIZITATEA GEUREAN. DEITU 943 71 23 91 TELEFONO ZENBAKIRA.

txalaparta • txalaparta • txalaparta

Ostiral (20:00-22:00) eta
larunbatetan (11:00-13:00)
Otsailaren 15etik maiatzaren 17ra
Musakolako Saloian
Hastapen eta sakontze mailak
Matrikula: 18 Euro (3.000 PTA)
12 Euro (2.000 PTA) ikasle
eta langabetuak.

gazte ikastaroak • gazte ikastaroak



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■

Izen emateak:

Gazte Bulegoan 943 77 00 65

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko otsailaren 8a / 15. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Herriko lan handien ondorioz, Udalak diru gutxiago du aurten

UBANE MADERA

Aurten, Aramaioko Udalak bestetan baino diru gutxiago izango du. Ondorioz, Udaleko sail guztiek ere diru gutxiago izango dute gastatzeko. Eta horrek eragina du herritarrengan. Zenbateraino eragingo duen jakiteko eta gaia apurtxo bat argitzeko, Iñaki Nafarrate alkatearekin berbetan izan gara.

Hark adierazitakoaren arabera, diru kopuruari dagokionez aurtengo aurrekontuaren eta beste

urte batzuetako aurrekontuaren artean ez dago alde handirik. Baina aurten, "konpromiso batzuk hartuta ditugu, adibidez, kultura etxea". Izan ere, batetik, kultura etxearen zati bat ordaindu beharko du Udalak; eta, bestetik, kultura etxea bera kudeatzeak, garbitzeak eta mantentzeak ere gastuak sortu ditu, eta horiek ere berriak izango dira Udalarendako.

Iñaki Nafarrate alkateak adierazitako beste konpromiso bat Oletako lanak dira: saneamendua eta gasifikazioa. "Bi obra horiek

oso garestiak eta inportanteak dira Oletarendako, baina auzoak berak bakarrik ezin die aurre egin". Hortaz, besteak beste, Udalaren laguntza jasoko du Oletak, eta, jakina, horretarako ere dirua ipini behar du Udalak. Oro har, "Oletako lan horrekin eta kultura etxetik zor dugunarekin, itota gaude".

Ondorioz, Udalak arlo guztietan egin behar izan ditu diru murrizketak. Edozelan ere, alkatearen esanetan, "ez dut uste jendeak askorik igarriko duenik. Adibidez, orain arte, jaietarako 240.000 pezeta eman baditugu eta aurten 140.000 ematekin baditugu, jaitziera oso inportantea da; hala ere, gura izanez gero, jaiak berdin-berdin egingo dira. Dena da erlatiboa".

Edozelan ere, Aramaion egiten ari diren lan handi horien garrantzia nabarmendu gura izan du alkateak. Haren ustez, auzoetako gasifikazioa derrigorrez egin beharreko erronka da. Baina kontuan hartu behar da Aramaioko auzoak oso sakabanatuta daudela, eta dena askoz ere garestiagoa dela. Kultura etxea, berriz, oso inportantea dela uste du: "Liburutegian, adibidez, lehen apenas izaten zen jendea, eta orain mordoa izaten da". Eta, aurrera begira, aurrekontua poliki-poliki egokituz joango dela esan du alkateak.



ARTIBOIA

Kultura etxeak eta Oletako lanek eraman dute aurrekontuaren kopururik handiena.



Egin dute Albinako itxitura


Orain dela hiruzpalau urte, Udala Albinako itxitura egin guran hasi zen. Han ganadu asko dago, eta errepidea zelaitik gertu. Ondorioz, istripu ugari izan dira. Gainera, gero eta gidari gehiagok hartzen du Albinako bidea Gasteizera joateko, hortaz, arriskua gero eta handiagoa da. Hori konpontzeko, orain dela hiru urte, Udalak errepideko zoruan sareta ipini zuen. Baina, hori ez zen nahikoa eta, baimena lortu eta gero, orain, hesia ipini du. Hain justu, Kurtzeta gainetik Marixekarainoko hesia ipini dute (4 bat Km). 66 mila euro pasatxo inbertitu dituzte lan horretan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Gustura zaude kultura etxearekin?



LUCIA DELGADO
Erretiratua

Oso ondo iruditzen zait, eta oso gustura nago kultura etxearekin. Batez ere, erretiratuen egoitzara eta eskulanak egitera joaten naiz ni.



JOSE BEITIA
Erretiratua

Guk, zaharrok, geure lokala daukagu eta oso ondo gaude. Orain behean ipini gaituzte. Zaharrendako eta larri samar gabiltzanondako, hobeto.



LUCIA SOUSA
Etxekoandrea

Niri gustatzen zait. Lehen baino askoz hobeto dago. Liburutegia du, gazteendako gaztetxea... denetik du, bai, oraingo kultura etxeak.



JORGE ASPE
Langilea

Ni, behinik behin, gustura nago. Liburutegia, ludoteka... erabiltzen ditugu. Herriarendako beharrezko zerbitzua dela uste dut.



VIRGINIA BERMEJO
Langilea

Bai. Umea eraman dezaket hara gura izanez gero. Behar genuen, bai, horrelako zerbait herrian, bereziki, eguraldi kaskarreko egunetarako.

LABUR

Aratusteak: zapatuan eta martitzenean

Zapatuan, Aramaioko kaleak kolorez beteko dira. Aratuste eguna da-eta. Ospatzeko mozerro lehiaketa izango da herrian. Lehiaketa 17:00etan irtengo dira kitx degitik. Eta, gero, 18:00etan partaideen artean sei sari banatuko dituzte, herriko plaza. Martitzenean, berriz, San Martin Eskolako umeek jolasak izango dituzte, eskolaren bertan, arratsaldean. Urteroko ohiturari eutsiz, seigarren mailako ikasleak arduratuko dira jaiaren antolaketa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postebetea	945 44 50 83
Zuia Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK
Emaitza politikak ekarri zituzten joan den asteburuan Aramaioko areto futbol taldeek. Kadete mailako mutilek 7-4 irabazi zieten Presentacion de Maria ikastetxeko mutilei. Eta neskek, berriz, 6-4 irabazi zuten Arezketa Ikastolaren kontra jokaturako partiduan. Oraingo asteburuan, bestalde, atsedean hartuko dute talde biek, Aratustek dira eta.

PALETA TXAPELKETA
Aurreko asteburuko emaitzak hauexek dira: Nafarrate-Flores 27, Azurmendi-Arriolabengoa 35; Emilio-Xabi 35, Berasaluze-Errasti 28; Abarrategi-Arriolabengoa 20, Armendariz-Orobengoa 35; Aspe anaiak 18, Barandiaran aita-emeak 35. Eta, dagoeneko, hasi dira txapelketaren amaiera aldera iristen. Horrela, oraingo zapatuan, oso partidu interesgarriak izango dira, finalerdietarako sailkapenerako balioko dute eta. Honako bikote hauek jokatu dute: 09:00etan, Amasena anaiak, Nafarrate-Flores; 11:00etan, Ojanguren-Garaita, Berasaluze-Errasti; eta, 12:00etan, Azurmendi-Arriolabengoa, Armendariz-Orobengoa.

ZINEMA
Oraingo honetan, *102 Dalmatas* filma emango dute kultura etxean, 17:00etan, betiko moduan.

OHITURA ZAHARRAK

Herriko nagusiak zapatuan eta gaztetxoek astelehenean, Santaren eskean

Hogei lagun pasatxo elkartu ziren joan den zapatuan Santa Ageda eskean ibiltzeko. Ibarra-Eguzkierripa ibilbidea egin zuten eta, esandakoaren arabera, eguraldi ona lagun, oso giro politean ibili ziren. Auzokideek ere pozik hartu ei zituzten. Bitxikeria moduan, zenbait baserritan txerria hiltzen ari zirela harrapatu zituzten, eta oso giro polita sortu zela adierazi digute. Gutxi gorabehera, 580 euro pasatxo batu dituzte kantariek. Diru hori Bixente Goikoetxea Abesbatzarendako izango da, iaz, parrokiako organoa konpontzeko dirua eman zuten eta.

Astelehenean, berriz, gaztetxoek txanda izan zen. San Martin Eskolako 110 umeak mailaka banatu eta Aramaioko auzoetan kantuan ibili ziren. Goizeko bederatzietan hasi ziren, eta talde bakoitzari zegokion auzoa egin eta gero itzuli ziren. Izan ere, eskolan Santa Ageda eguna aprobetxatzen dute, ikasleek Aramaioko auzoak bisita ditzaten (euretari-ko askok ez dituzte eta herriko auzo asko ezagutzen). Urtero, maila bakoitza auzo batera joaten da; hala, eskola bukatzen dutenean, auzo guztiak ezagutzen dituzte.



HERRIKO JOLASAK

KULUNKATZEKO JOLASAK (TXUTXURRUTXUKE)

Kulunkatze era hori gurdien erabilera gutxitzearekin batera desagertuz joan da. Badira, agian, berrogei bat urte desagertu zela. Udaberri partean asko egiten ei zen.

Ume talde bat gurdien atzeko aldean esertzen zen eta indartsuena, hagan hankalatraba eginez, aurreko aldean. Abesti bat kantatzen zen eta bukatu arte goian edukitzen zuten:

- Txutxurrutxu mañe
- Nun da attejaune
- Zeruetan jaune
- Zetan zeruetan
- Artue karraiketan (edo, arta karaunek batzen)
- Zetako artue
- Olluendako
- Zetako ollue
- Arrautzie eitteko
- Zetako arrautzie
- Olatie eitteko
- Zetako olatie
- Abadiendako
- Zetako abadie
- Mezie emoteko
- Zetako mezie
- Aingerutxo biren erdixen ipini
- Ta zerure jueteko

Eskola umeak izaten ziren, hamabi urte artekoak. Asperitzen zirenean uzten zioten jolasari.

Aramaioko joko eta jolasak liburutik

BOTEPRONTOAN/ Iker Olaziregi · Arraga auzoko alkatea

“Auzoarendako aberasgarria izan da Iturrieta sagardotegia zabaldu izana”

Ibarratik gora eginez, Etxaugen eta Gantzaga moduan, Arraga auzoarekin ere egingo dugu topo. Akaso, azken urteotan apurtxo bat ezagunagoa egingo zaigu auzo hori, Aramaioren zabaldu duten Iturrieta sagardotegia dagoen auzoa da eta. Zerbait gehiago jakin guran, Iker Olaziregirekin izan gara berbetan, Arragako auzo-alkatearekin. Beste gauza askoren artean, kontatu digu hura dela auzo-alkateen artean gazteena:

Auzoa da Arraga?

Ibarra auzoaren barruan gaude. Gainerako auzoek, Arexolak, Etxaugenek... kanposantua dute, guk ez. Elizatea-edo dela uste dut.

Auzo-alkate?

Bai. Azkeneko aldiz hauteskunde bitartez egin genuen, eta neu aukeratu ninduten. Auzo-alkaterik gazteena naiz. Hirugarren urtea beteko dut, azkena falta zait. Eta ez dut uste segituko dudarik, hemen gazte gehiago ere badaude...

Zenbat zarete auzoan?

Hogeita lau bat lagun eta zazpi baserri, lehen baino bat gehiago. Lehen ardi korta bat zena orain baserri egin dute. Orain arte baserri bakarra bizi zen; eta orain, sagardotegikoak...


Zelan igarri duzue auzoan Iturrieta zabaldu izana?

Ondo. Auzoarendako aberasgarria izan da hori. Lehen hemen ez zegoen ezer, eta orain taberna dugu... Gureta-ko oso-oso ondo.

Gauza txar bakarra dauka: bide txarra dugu, eta sagardotegiaren ondorioz, zirkulazio handia izaten da, autobusak... **Ermitea pribatua duzue Arragan?**

Bai, horixe esaten dute, eta ez da gurea. Dena dela, garbiketarako gure amama ibiltzen da... Hortaz, parterren bat izango dugu. San Pedro eta San Pablo daude ermitan, baina auzoan Arragako San Pedro esaten zaio.

Jaiak?



San Pedrotan, ekainaren 29an. Meza egiten dugu eta gero, azken urteotan, plazatxo horretan merienda antzekoa egiten dugu, auzoko guztiak elkartzen gara, dantza apur bat egiten dugu, kontu batzuk kontatu... Eta horrelaxe izaten da. Hemengo jaiak hemen izaten da, eta kito. **Tontor berezi bat ere baduzue?**

Aramaioko erdi-erdian dago; orduan, jende guztia zaintzen dugu hemendik: zein dabilen lanean eta zein ez... (barreak) **Zer eskatuko zenioke Udalariri?**

Bidea konpontzea; sagardotegia dela eta... apur bat nasaitzeko-edo.

Bada Arragan jaiotako pertsonaia garrantzitsurik? Garrantzitsuak guztiak, auzoko guztiok.

Zer du bisitariarendako? Haizea ibiltzen da, kristoren haizea ibiltzen da (barreak). Eta, bestela, sagardotegia eta parajeak.

ERRETRATUZAHARRA

Aramaioko Azkoagako Uxar baserritik

1 945. urteko abuztuaren 25ean, Daniel Beitia aramaioarra eta Felisa Leon madrildarra ezkondu egin ziren, Madrilen. Horrelakoetan ohi denez, ezkondu eta gutxira, Aramaiora etorri ziren, emazteak hemengo familia ezagutu zezan. Irailean izan zen hori, irailaren 2an. Eta, familia osoaren argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. Azkoaga auzoko Uxar baserrian bizi ziren eta hamabi anai-arreba ziren, hortaz, familia handia.

Hona hemen argazkian agertzen direnak: 1- Paulina Beitia, 2-Teresa Beitia, 3-Maite Bermejo, 4-Jose Bermejo, 5-ezezaguna, 6-Vicente Beitia, 7-Maria Uribe, 8-ezezaguna, 9-Daniel Beitia (ezkonberria), 10-Mercedes Aspe, 11-Felisa Leon (ezkonberria), 12- Benito Abarrategi, 13-On Felipe (Azkoagako abadea zen), 14-Josefa Beitia, 15-Daniel Aspe, 16-Gumer Beitia, 17-Uribarren, 18-Felisa Beitia, 19-Juanito Beitia, 20-ezezaguna, 21-Petra Aspe, 22-ezezaguna, 23-Santi Beitia, 24-Javier Mari Abarrate-



gi, 25-Valentina Beitia, 26-Eulogi Beitia, 27-Jose Abarrategi, 28- Carmen Abarrategi, 29-Milagros Abarrategi, 30-Begoña Abarrategi, eta 31-Josetxu Abarrategi.

Gure berriemaileak kontatu digunez, urte batzuk geroago (zortzi-

bederatzi bat urte), hona etorri ziren betiko. Bi urtez Aramaion bizi izan ziren, Uxar baserrian, eta gero Arrasatera joan ziren. Gure ezkonberriek hiru seme-alaba izan zituzten: Mila, Javier eta Jesus.

Argazkia Uxar baserriko zelaian

dago aterata. Atzean Azkoagako eliza ikusten da.

Argazkia: Mila Beitia
Informazioa: Mila eta Juanito Beitia
Urtea: 1945

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Biteri Fundazioa eta taxi geltokia

Argazki zaharreen azaltzen den eraikina Biteri Fundazioa da. Gaur egun aparkalekua dagoen lekuan, 1950. urtean eraikin eder bat zegoen. Eraikinaren parean taxi geltokia zegoen –eta kartelak argi erakusten du hori. Etxearen atzeko aldean Grupo San Juaneko etxe bat ikus daiteke, argazki horretan aldatu ez den gauza bakarra, hain zuzen ere.



± 1956 Parajeak, kaleak eta auzoak asko aldatu dira, eta argazki honetan autoak zenbat aldatu diren ere ikusi daiteke.



2002 Gaur egun, eraikin dotore hura desagertua dago. Haren ordez, aparkalekuak eta txurro denda ikusi ditzakegu. Taxirik ere ez dago hor.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahañ eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



arbolapeta



TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

Etxeko lanak egitea guztion ardura da.



Emakumeen tailerretan:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Automobilen mekanika

Gizonen tailerretan:

- Joskintza
- Lisatzea
- Sukaldaritza
- Garbiketa

Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara
Otsailan hasi eta maiatzera arte • Matrikula: 12 €.

Izen ematea: Emakume Saila 943 79 41 39 edo
Gazte Bulegoan 943 77 00 65 telefonoetara deituta.
Azkeneko eguna: Otsailaren 13a.

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



**LEHEN
HEZKUNTZA**

**HAUR
HEZKUNTZA**

D

eredua

D.B.H.

943 79 27 73

zurekin

HAURTZAINDEGIA

ZERO urtetik
61,00 euro hilean

La Merced Ikastetxea



X-TRAIL BERRIA

- ALL MODE 4X4 TRAKZIO SISTEMA ELEKTRONIKOA X
- 4 AIRBAG X
- ABS.EBD (BALAZTATZEAREN BANAKETA ELEKTRONIKOA) X
- NISSAN BRAKE ASSIST. EPS+ (EGONKORTASUNAREN KONTROL ELEKTRONIKOA. GASOLINAKOAK BAKARRIK). X
- 4 DISKOZKO BALAZTA. X
- XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA. MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DAITEKE. X
- BI MOTOR MODERNO: X
- 2.2L COMMON.RAIL T-DIESEL INTERCOOLER 6 MARTXAKOA. X
- 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK ALDATZEKO ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI) X

-TREME LIFE



3.923.000 €-tik
aurrera*

SEE THE CHANGE

3 URTEKO
BERMEA
EDO 100.000 KM.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate